

**Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV)
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea**

GRADU AMAIERAKO LANA

Banka etikoaren azterketa, Fiare kasua

Egilea: Imanol Larrañaga Galán

Zuzendaria: Ana Beraza Garmendia

Zuzendarikideak: Jesús Ochoa eta Javier Iñiguez del Val

Donostian, 2019ko urriaren 8a

Aurkibidea

1	SARRERA	iii
1.1	Sarrera	iii
1.2	Helburua	iii
1.3	Metodologia	iv
1.4	Lanaren egitura	v
2	BANKA ETIKOA ETA BANKA TRADIZIONALA	1
2.1	Erantzukizun sozial korporatiboa	1
2.2	Erantzukizun sozial korporatibo estrategia motak	4
2.3	Erantzukizun sozial korporatiboa banka klasikoan	7
2.3.1	Erantzukizun sozial korporatiboa banka etikoan	9
2.4	Banka etiko eta tradizionalaren arteko desberdintasunak	12
3	GAUR EGUNGO BANKA ETIKOAREN EGOERA	23
3.1	Banka etikoaren sorkuntza	23
3.2	Hedapena europara	24
3.3	Espanian dauden banku etikoak	24
3.3.1	Triodos Bank:	24
3.3.2	Banka fiare	26
3.3.3	Oikocredit:	27
3.3.4	Coop57	28
4	FIARE KASUA	31
4.1	Antolaketa eta proiektuen baloraketa	31
4.1.1	Antolaketa	31
4.1.2	Proiektuaren balorazioa	31
4.2	Elkarrizketak	36
4.3	Fiare zenbakiak, analisi finantzarioa	41
4.3.1	Ratioen azterketa:	50
5	ONDORIOAK	53
6	BIBLIOGRAFÍA	55
7	ERANSKINAK	57
7.1	Peru Sasiari eginiko elkarrizketa	57
7.2	Ugo Biggeriren elkarrizketa	67

TAULAK

Taula 1 Elkarrizketen fitxa teknikoa.....	iv
Taula 2 Bi banken arteko ezberdintasunak	15
Taula 3 Maileguak aktibo totalen %-tan	16
Taula 4 ROA	16
Taula 5 ROE	17
Taula 6 Fiare España jasotako diru kantitatea	41
Taula 7 Fiare Espainian egindako operazioak	42
Taula 8 Fiarek sortutako diru partidak.....	43
Taula 9 Sortutako diruaren banaketa	44
Taula 10 Irabazi eta gastuen kontua	47
Taula 11 ROE	51

IRUDIAK

Irudia 1 Urteko errendimendu balorazioa	1
Irudia 2 Ekintza soziala denboran	2
Irudia 3 Banka tradizionalak utzitako dirua sozietatean	8
Irudia 4 Banka tradizionalak proportzionalki utzitako dirua soizetatean	9
Irudia 5 Banku klasikoen eta etikoen ikuspegiak.....	14
Irudia 6 Gordetako balio ekonomikoaren banaketa.....	46
Irudia 7 Zerga aurreko eta ondorengo emaitzak	49
Irudia 8 Faire errentagarritasun indizea	51

1 SARRERA

1.1 Sarrera

2019. urtean gaude, 11 urte pasa dira 2008. urteko krisia hasi zenetik, oraindik ez dugu ahaztu bizi izan genuen kolpe latz hura. Europa, Espainia eta nola ez Euskal Herri mailan aldaketa gogorak eman ziren. Aldaketa horiek negatiboak bakarrik ez ziren izan, gizarte kritiko bat izatera pasatu ginen, errealitatea baloratzerara. Hortik abiatuz, erakundeek zuten erantzukizun sozialaren balioa handitu egin zen.

Ekonomian, banka etikoak geroz eta famatuagoak dira, baina banka tradizionalekin konparatuz gero, nahikoak al dira? Zein dira bere desberdintasunak? Zertan inbertitzen dute bere dirua, edo zer nolako inpaktu soziala dute? Lan honekin galdera hauei erantzuna emango diegu, alde teoriko eta analitiko batetik konparatuz. Geroago Fiare Banca Ética aztertuko dugu bereziki, nola sortu zen, zein den bere egoera eta zer espero dezakegun enpresa honengandik.

Gure sistema ekonomiko nagusia mozkin handiago batzuk edukitzean oinarrituta dagoenez, ingurugiroa eta gai sozialak 2. maila batean utzi ohi dira. Banku etiko bezalako enpresek beraien lehentasunak berrantolatzen dituzte, horrela, ekonomia hutsa alde batean utzi, eta bestelako gaiak barneratzeko aukera dute.

Finantzen mundua sumatu ezin daiteken eta aldaketaz beterik dagoen inguru oso azkar bat da. Gainera, kanpo aldaketak eragin handia izaten dute bertan. Honi sozietateak bizitzen ari den aldaketak barneratzen badizkiogu, banku etikoek etorkizun batean izan dezaketen garrantzia aztertzea derrigorrezkoa iruditzen zait.

1.2 Helburua

Lan honen oinarritzko helburua banka etikoen funtzionamendua ulertzea da. Horretarako, banka klasikoekin konparazioak egingo ditugu, benetan bi banku mota ezberdin hauen diferentziak argi ikusi daitezten. Horrez gain, banka etikoen inguruan aritzen diren kontzeptuak ere definituko ditugu. Azkenik, banku etiko baten zentratuko gara, kasu honetan Fiare banku etikoa. Hauek izango lirateke helburuak:

- Banka etikoa definitzea eta dituen bereizgarritasunak ulertzea.
- Erantzukizun sozial korporatiboa definitu eta bere inguruan aritzen diren agenteek emandako erabilgarritasuna ezberdintzea. Hau da, banku tradizionalen eta banku etikoen artean dauden ezberdintasunak argi azaltzea.
- Banka etikoa nola sortu zen jakitea, eta bere sorkuntzatik gaur egun arte igarotako prozesua ikustea.

- Nazionalki, eta internazionalki dauden banku etiko ezberdinak aztertzea.
- Azkenik, Fiare Banca Etika sakonduz aztertzea, analisi kualitatibo eta kuantitatibo bat eginez. Elkarrizketen bidez beste inon lortu ez daiteken informazioaz baliatuz, eta balantze sozialean dauden kontuen analisi finantzario bat eginez.

1.3 Metodologia

Aurreko atalean ikusitako helburuak lortzeko, iturri ezberdinen erabilera egin dut: Albisteak, liburuak, web-guneak edota entitate ezberdinek argitaratutako txosten ezberdinak erabili dira. Informazio hau aprobeztatu eta ulertzeko, hainbat taula eta irudi daude lan honetan, momentuan transmititu nahi dudana argi ikusi dadin.

Lan honetan egindako ikasketa hau, ikerketa kualitatibo baten bidez egin dago, bertan lehen aipatutako iturri ezberdinetatik eta elkarrizketa batzuetatik lortutako informazioaz baliatu naiz planteaturiko galdereri erantzun bat emateko. Fiare banku etikoari eginiko analisi finantzarioa 2019. urtean zehar egin da, beraz aztertutako balantzea aurreko ekitaldikoa da, 2018. urtekoa. Analisi hori burutzeko Excel programa erabili dut, datuak taldekatzeko eta esplotatzeko. Aipatutako elkarrizketak beharrezkoak izan dira lan honi bestelako erantsitako balio bat emateko. Elkarrizketak grabatu eta transkribitu egin dira, hauek eranskinetan topatu ditzakegu.

Taula 1 Elkarrizketen fitxa teknikoa

Nº	Entitate edo organizazioa	Elkarrizketatua	Tokia	Denbora	Epealdia
1	Fiare Banca Etica	Peru Sasia	Deusto unibertsitatea (Bilbo)	45 minutu	2019ko irailaren 17a
2	Fiare Banca Etica	Ugo Biggeri	Email bidez	-	2019ko irailaren 27a
3	Mugarik gabeko ekonomilariak	Jesús Ochoa eta Javier Iñiguez del Val	Ekonomia eta enpresa fakultatea (Gipuzkoa)	4 aldiz geratu ginen, ordu bat bakoitza	2019. urtearen zehar

1.4 Lanaren egitura

Lan hau 5 oinarrizko taldeetan osatuta dago. Horiek eta gero, beste bi puntu edukiko genituzke.

Lehengo zatian sarrera bat emango diogu lan honi, lortu nahi ditugun helburuak, bere metodologia eta erabilitako informazio iturriak azalduz.

Hurrengo atalean banka etikoan sartzen hasiko gara. Hasieran alde teoriko batetik ikusiko dugu, non hainbat definizio aurkituko ditugu. Hori eta gero, banka etikoa eta klasikoa alderatzen hasiko gara, hainbat txostenetik lortutako informazioaz baliatuz.

Hirugarren atalean, banka etikoaren sorkuntzatik, gaur egunera arte igarotako prozesuaz arituko gara. Nola hasi zen banka etikoaren mugimendu hau, eta baita nola dagoen gaur egun ere. Puntu honekin amaitzeko estatu mailan dauden banku etiko garrantzitsuetaz hitz egingo dugu.

Laugarren atalean lan honen kasuan zentratuko gara, Fiare Banca Etica. Hemen, Fiaren adituak diren Mugarik Gabeko Ekonomilariak, Peru Sasiak (Fiare bankaren Presidenteordea) eta Ugo Biggerik (Fiare bankako Presidente) eskainitako informazioa izango dugu eskuragarri. Emandako informazioaz baliatuz, Fiare Bankuaren egitura eta lan egiteko eraz hitz egingo dugu. Hori eta gero, analisi finantzario bat dago, non Fiarek azkeneko bi urteetan izandako partida eta emaitzetaz arituko garen.

Bostgarren puntuan lan honen ondorioak daude, hau da, lan hau egin ahala izan ditudan ideiak. Alde batetik banka etikoaren ondorioak daude, eta beste alde batetik Fiare Bankuko ondorioak. Honekin batera, etorkizun batean egon daitezken ikerketa adar berriak barneratu ditut.

Eranskina: Hemen eginiko bi elkarrizketak transkribituta edukiko ditugu. Xehetasun denak edukitzeko asmoz.

2 BANKA ETIKOA ETA BANKA TRADIZIONALA

Banku etikoek, pertsonak barneratu nahi dituzte beraien aktibitatearen muinera, beraien jarduerak ingurumenean eragin dezakeen inpaktu ahaztu gabe. Hauek entitate finantzarioak dira, alde batetik aurrezki eta inbertsio funtsak jasotzen dituzte, eta bestetik, baliabide ekonomikoak behar dituzten pertsonen bizi kalitatea hobea izan dadin laguntzen dute. Hauek, natura babesten duten proiektu, enpresa eta hainbat erakunderi finantzazioei eskaintzen diete (Triodos Bank, s.f.).


Hau da, banku tradizionalekin alderatuz ikusi dezakegu bere ideia nagusia ez dela bakarrik errentagarritasuna edota mozkinak izatea, ikuspuntu sozial bat erabiltzen dute bere jardueratarako. Honez gain, hainbat abantaila izan ohi dituzte, hala nola, bere gardentasuna.

Bi banku hauen arteko diferentziak ikusi baino lehen, hainbat kontzeptu definitu eta ulertuko ditugu, hala nola, erantzukizun sozial korporatiboa edota etikaren aplikazioa enpresan. Beraien arteko ezberdintasunak ez dira bakarrik ekonomikoak, kanpotik ohiko banku bat dirudien arren, hasiera batean ikusezinak diren ñabardurak dira era honetako bankuak berezi egiten dituztenak.

2.1 Erantzukizun sozial korporatiboa

Erantzukizun sozial korporatiboa gero eta entzunagoa den gai bat da, lehen aipatu dudan bezala, gizakien ikuspuntu soziala gora doa, eta gora egin ahala, enpresa eta erakundeek ere aurre egin behar die horrelako beharrei. Horregatik gero eta gehiago dira horrelako pentsatzeko erak barneratzen dituztenak, honako taula honetan ikus dezakegun bezala.

Irudia 1 Urteko errendimendu balorazioa




Iturria: Egileak berak egin, Deloitte, 2019:2 datuetan oinarrituta

Deloitte 2018. urtean argitaratutako txosten batean enpresa ezberdinetako exekutiboek erantzundako inkestak datuak erabilgarri dauzkagu. Datu hauen arabera argi ikusten da inpaktu soziala lehen aukera bezala hautatzen dela %34 etan, besteekiko diferentzia handiarekin. Enpresak jakitun dira gauden egoeraz.

Beste faktoreei erreparatzen badiegu denak ia berdin eta uniformeki banatzen dira, hau da, inpaktu soziala izan da besteengandik gailendu den bakarra. Baina zergatik izan daiteke hori horrela? Nire ustez ez dira ari baloratzen bakarrik momentu honetan inpaktu sozialek edota erantzukizun sozialek eduki dezaketen inpaktua, baita etorkizun batean izan lezaketena ere. Planteamendu hori hurrengo grafikarekin ondorioztatu dut.

Irudia 2 Ekintza soziala denboran

Ekintza sozialak duten garrantzia denboran zehar



Iturria: Egileak berak egin, Deloitte, 2019:2 datuetan oinarrituta

Hemen ikusi dezakegun bezala, argi dago garrantzia ez dela txikitu, handitu baizik. Lehenengo puntuari erreparatuz (orain dela 3 urteko egoera gaur egungo egoerarekin alderatuz), inkestatutako %44ak pentsatzen du gai honek duen pisua handitu egin dela. Benetan interesgarria iruditzen zaidan puntua etorkizunari begira dagoena da. Gaur garrantzitsua bada ere, inkestatuek ekintza sozialek hemendik hiru urteetara izango duen presentzia areagotu egingo dela aurreikusten dute, aipatzekoa da zer nolako adostasuna dagoen ere, behintzat txikitu ez dela egin aukeran, txundigarria da nola sozietatearekin loturiko gaiak etenik gabe aldatzen doazen denboran zehar.

Baina, zer da erantzukizun sozial korporatiboa edo ESK? Hainbat definizio ezberdin jasotzen dituen gai bat da, ikuspuntu ezberdinetatik interpretatu daitekeena. Horregatik, ez dugu autore bakarra erabiliko, ezta dimentsio bakarra ere. Hona hemen definizio batzuk.

Michael Porter eta Mark Kramer-ek (2002) filantropia eta negozio ereduaren artean biei komeni zaien puntua aurkitu dezakegula defenditzen dute. Horrela, onuragarria izango litzateke bai sozialki baita ekonomikoki ere. (Nieto Antolín & Fernández Gago, 2004, 30 orr.).

Klasikoa den Europa komisioko liburu berdean, erantzukizun sozial korporatibentzat honako definizio hau topa dezakegu, «Bere akzio komertzialetan eta erlazioetan, enpresen aldetik ingurugiro eta arazo sozialen borondatezko integrazioa» (Navarro García, 2012, 67 orr.).

Enpresako erantzukizun soziala (EES) lehiakortasuna eta hazkundea lortu nahi dituen borondatezko fenomeno da, ingurumenaren hobekuntza eta

konpromezu sozialaren garapena batera integratuz. (Navarro García, 2012, 66 orr.).

Economistas sin fronteras ONG-ak Mugarik Gabeko Ekonomialariak (MGE) izeneko Gobernu Kanpoko Erakundeak (<https://ecosfron.org/>) ematen duen definizioa aurreko definizioaren nahiko antzekoa da, baina kasu honetan luzeagoa eta zehatzagoa. «Ardura sozial, laboral, ingurugiro, eta gizakien eskubide errespetuen estrategia; politiken sorkuntza eta beharrak asetzen dituen gestio eta operazioen errekonozimendu eta integrazioa (Navarro García, 2012, 67 orr.).

Fóretica-rentzat, iraunkortasun eta erantzukizun arloetan erreferente den organizazioarentzat (<https://foretica.org/>), erantzukizun sozial korporatiboa garapen soziala eta ingurugiroaren hobekuntza integratuz, enpresen hazkuntza eta lehiakortasuna bateratzea bilatzen duen borondatezko fenomeno da (Navarro García, 2012, 68 orr.).

Bernardo Kliksberg, enpresako erantzukizun sozialaren inguruan oso aditua den soziologo eta ekonomilari batek, beste dimentsio eta ikuspuntu batzuk planteatzen ditu kasu honetan. Enpresa batek eduki beharko lituzkeen baldintza batzuk jasotzen ditu erantzukizun sozialarekin bat egin dezaten.

1. Langileen hazkuntzan laguntzen duten eta beraien eskubideak defendatzen dituzten pertsonal politikak. EES etxetik hasten da. Aurrera egiteko aukerak, bidezko ordainketak eta lan baldintza egokiak edukitzean datza. Hala ere, gaur egun bestelako gai kritiko batzuk ere barneratzen ditu, horien artean genero diskriminazioen ezabaketa adibidez, non oraindik ere ordainketetan eta direkzio posizio bat edukitzeko aukeran ezberdintasunak dauden [...].

2. Gardentasuna eta gobernu korporatibo on bat. Informazioa publikoa eta segitua izan behar da. Akzionistek esku hartze aktibo bat izateko aukera izan behar dute. Direkzio organoak kontrolagarriak izan behar dira, eta hauek inongo interes konfliktorik gabe egin beharko dute lan.

3. Garbi jokatu behar da kontsumitzailearekin. Produktuak kalitate onekoak izan behar dute, eta prezioak zentzuzkoak. Gainera, gure produktuak osasungarriak izan behar dira.

4. Ingurumenaren aldeko politika aktiboak. Enpresak ingurugiroarekiko garbiak izatera aldatzetik, hainbat erakunderekin lan egitera horrelako arazoei aurre egiteko.

5. Denen- ongizatean eragiten duten gaien integrazioa. Espektatiba, enpresa pribatuek politika publikoei laguntza eskaintzea da. Aliantza estrategikoetan, interes kolektiboa duten funtsezko gaietan, desertzio eskolarrean, hezkuntza kalitatearen hobekuntzan, amen heriotza tasan, eta haurren heriotza tasan bezalakoak [...]. Politika publikoa ordezkatzeko ez da eskatzen, demokrazia batean hezkuntza, osasuna, lana, eta ilusioa bermatzeko obligazioa duena, honen aliatu izatea baizik.

6. Etika kodigo bikoitzarik ez aplikatzea, hau da, koherentzia bat derrigorrezkoa da enpresaren erantzukizun sozialean eta bere praktikaren artean. (Kliksberg)

Inbertsio etiko edo erantzukizun sozialeko inbertsioak, irizpide etiko eta finantzarioak nahasten dituen inbertsioak dira, horrela, inbertsioek ez dute bakarrik ikuspuntu finantzarioa edukiko kontuan, errentagarritasuna eta segurtasuna bezala. Kasu honetan, entitateek emandako erabilera ere kontuan izango da, eta eskatu egingo zaio irizpide etikoen erabilera. (San Emeterio & Retolaza, 2003).

2.2 Erantzukizun sozial korporatibo estrategia motak

Erantzukizun sozialaren inguruan hainbat estrategia daude, hemen nagusienak taldekatu eta azalduko ditugu, informazio honentzat spainisif (2018) egindako txostena erabiliko dugu iturri gisa.

Baztertzea¹

Baztertzea, ingurugiro, sozial eta gobernu on bateko irizpideak barneratzeko aktibo finantzarioen antolakuntzan dagoen estrategia errazena da. Ezarritako inbertsio politikaren aurkako jarduera duten enpresak inbertsio zorro batean sartzeko aukerazko entitateak bilatzean datza. Esklusio kriterioak ezberdinak dira entitate finantzario batetik bestera, ohikoenak armamentua, pornografia, tabakoa, energia nuklearra edo haur esplotazioa izanik.

Gainera, azken urteotan zor publikoan inbertitserako orduan ematen dira baztertze estrategiak, kasu honetan, baztertze kasu ohikoenak erregimen diktatorioei, ingurugiro akordioak berretsi ez dutenei, instituzioen korrupzioei, tratatuen hausteei, heriotza zigorrei edo energia nuklearraren aldeko laguntzei aplikatzen dira.

Estrategia hau gaur egun eskala globalean ohikoena da, ingurugiro sozial eta gobernu on bateko irizpideen gestioan dauden aktibo totalen %36 izanik.

Beraz, esklusioa minimoen estrategia bezala hartu behar da. ASG kriterioak sartzeko konprometituta dauden entitateen deklarazio intentzioa da beren inbertsio estrategietan (SPAINSIF, 2018).

Arauetan oinarritutako Screening-a (Screening basado en normas):

Arauetan oinarritutako screening-a europa iparraldeko herrialdeetan sortu zen estrategia hau, esklusioaren eboluzio gisa. Eta karaktere normatibo handiagoa intentzioarekin. Kasu honetan, ez dira aktiboak gestionatzen dituzten entitateak

¹ Izenburuak egileak jarritakoak dira, hori dela eta, batzuk berezko hizkuntzan utzi dira ulergarriagoak izan daitezzen.

arduratsen zein balore sartzan dituzten beren karteran eta zein ez. Prozesua, entitateek kanpo arauak betetzen dituzten edo betetzen ez dituztenen arabera ematen dira aurrera, arau internazionala, ingurugiro babesa, lan eskubidea, giza eskubideak edo antikorruptzioan.

Inbertsio prozesuan iraunkortasunarekin konprometita dagoen entitate baten pausu naturala da hau, bere inbertsio estrategia iraunkor eta arduratsua organismo internazionalak ezartzen dituzten arau ezberdinekin bateratzen dituztela ziurtatuz.

Orokorrean gehien erabiltzen diren arauak hauek dira: munduko nazioarteko ituna, multinazionalak diren enpresentzako OCDE norabideak, etab. Eskala gobalean ASG-ren gestiopean dauden aktibo totalen %15a suposatzen du estrategia honek (SPAINSIF, 2018).

Best in class:

Best in class ez da sektore edo aktibitateen eskusioagatik bereizten, baizik eta merkatu edo sektore ezberdinen barruan ASG-en ondoen jarduten diren entitateen inklusioan. Inbertsio zorro bat osatzerako orduan entitate iragazki bat aplikatzen duen azken estrategia da.

Kasu honetan, apikatutako estrategiak konpromezu handiago bat eskatzen du aktiboak gestionatzen dituen entitatearen aldetik. ASG kriterioak definitu behar dira, baita kriterioak nola neurtuko diren ere. Beharrezkoa da enpresen ASG jardura mailakatzen duen lista bat sortzea. Bertan kontuan izango diren ASG kriterio ezberdinen araberrako pisuzko sistema sortuz.

Best in class estrategia bat aurrera eramateko beharrezkoa den esfortzu handiena, entitate finantzario eta gestoreek beraien inbertsio politikan iraunkortasunarekiko hartzen duten konpromezua da

Best in class estrategiak ez du derrigortzen enpresarentzat garestiagoak diren materialen erosketara, enpresa berak dituen baliabideetara mugatu daiteke. Lehendabizi burtsa indize iraunkorren merkatu handi eta heldu bat dago, hauek beraien aldagaiak sektorearekiko, ASG erantzunarekiko, eskualdekiko eta tematikarekiko aukeratzen direnak, zorroaren gestio pasibo batekin lagunduz. Adibidez, Dow Jones Sustainability, MSCI indizeak edo Morningstar indizeak.

Ondarea kudeatzerako orduan bai sortzen direla arazo gehiago, ASG baloratzen duten zerbitzu hornitzaileak daude informazioa emateko eta bezeroen beharretarako.

Azkenik, baliabide gehiago dauzkaten enpresentzat eta bere Best in class prozesuaren kontrol total bat nahi duten enpresentzat, barnean ASG talde bat edukitzeko aukera existitzen da. Talde hauen helburua, aukeratutako enpresen ASG informazioa lortu, eta analizatzea da. Kanpo informazio iturriak (zerbitzu hornitzaile, indize edo ratings) ere erabili dezakete, beraien inbertsio filosofiarekin sinergi gehiago sortzeko intentzioarekin (SPAINSIF, 2018).

ASG integrazioa

Inbertsio aukerak hartzerako orduan, eginiko analisi finantzarioan ASG irizpideak barneratzean datza.

Esan dezakegu Best in class strategiaren hurrengo pausua dela. ASG kriterioak definitzeko eta baloratzeko esperientzia eta ezaguera maila handia lortu duten entitate finantzario eta gestorek erabili ohi dute estrategia hau. Gai dira analisi finantzarioan erabilitakoekin konparagarriak diren adierazleak sortzeko, horrela bere integrazioa lortzen dute inongo iragazki edo filtrorik erabili gabe.

ASG-ren integrazioa ahalbidetzen duen sakontasuna eta sortzen dituen aukerak, beste inbertsio iraunkor strategiengandik ezberdintzera eraman ditu, entitate asko.

Barneratzeko zaila den arren aipatu behar da aktibo zorro aurreratuak sortzeko aukera ematen duela, ASG kalifikazio baxuagoa duten lehiakideak menperatuz (SPAINSIF, 2018).

Engagement eta voting

Voting estrategia edo botu aktiboa, akzionistek batzarretan bozkatzeko duten ahalmenari deritzo. ASG irizpideak ospean, inbertsorean eta errentabilitatean inpaktua duten kontzientzia zabaltzen ari da.

Inbertsoreak gero eta aktiboago erakusten dira beraien eskubideen erabileran, batzarretan ASG irizpideekin lotura duten galderak eginez edota administraritzak kontseiluak proposaturiko erabaki batzuen kontra botu eginez.

Engagement edo hizketa aktiboa inbertsore instituzionalak gero eta gehiago erabiltzen ari diren estrategia bat da, akzionistek beraien eskubideak erabili baino lehen eginiko aurretiko negoziazioa edo ASG irizpideak ez erabiltzeagatik eginiko desinbertsioa.

Estrategia hau inbertsore eta enpresaren artean komunikazio bide bat eratzean oinarritzen da, ASG gaiaren inguruan sorturiko eztabaidak saihestu edo zuzentzeko (SPAINSIF, 2018).

Inbertsio tematikoak

Inbertsio iraunkor eta erantzule mota hau, normalki errenta aldakorreko funtsetan ikus dezakegu, ASG gaiekin bat egiten duten baloreen aukeran oinarritzen da estrategia.

Horrela, bakarrik bono berdeetan inbertitzen duten inbertsio funtsak, uraren gestio arduradun bat egiten duten enpresa eta proiektuak aukeratuta sorturiko funtsak, karbono baxuan oinarritutako ekonomiako funtsak, garapen iraunkorrean oinarritutakoak etab.

Inbertsio tematikoak iraunkor bezala kontsideratuak izateko ASG-ren hiru ikuspuntuak eduki behar dituzte, batekin ez da nahikoa.

Inbertsio tematiko iraunkorrak oso inbertsio ibilgailu interesanteak dira, finantzazioa sektore espezifiko batzuetan zentratzen dutelako. Inbertsoreentzat errentagarritasuna sortuko duen merkatu iraunkorrak bultzatuz (SPAINSIF, 2018).

Inpaktu inbertsioak

Estrategia berriena da hau, eta besteengandik bereizten duena ikuspuntu berezia da, inpaktua, sozietarentzat emaitza bat bezala neurtuz.

Estrategia honen ideia nagusia errendimendu finantzario lehiakor bat eta aldi berean ingurugiroan edota sozietatean inpaktu positibo bat lortzea da. Inpaktua neurgarria izan behar du, aldaketa nabarmenak lortzeko asmoz arazo sozial eta ingurugiroan.

Argi dago produktu finantzario iraunkor bat bezala kontsideratzeko ASG irizpideak bete behar dituela, hau da, inpaktu sozial bat badu ere, ingurugiroan kalte bat sortzen ari bada, ez litzateke horrelako produktu bat kontsideratuko.

Inbertsio mota hau hainbat proiektu mota ezberdin finantzatzeko erabili daiteke, aldaketa klimatikoan, ikasketa munduan, osasungintzan etab.

Inpaktu estrategiek beste estrategiekiko duten ezberdintasun garrantzitsuena inbertsioaren errentagarritasuna finantzarioki eta inpaktu sozial/ingurugiroki baloratzen da. Hori dela eta, inbertsoreek aukera izango dute jakiteko zer nolako inpaktua eragiten ari diren une oro.

Estrategia honek arrakasta izan dezan, inbertsioaren aurretiko emaitzak identifikatuak, espezifikuak eta neurgarriak izan behar dute inbertsoreek dirua jarri baino lehen (SPAINSIF, 2018).

2.3 Erantzukizun sozial korporatiboa banka klasikoan

Bertan egiten den erantzukizun soziala aztertzeko, lehenbizi hainbat puntu jorratu nahiko nituzke, eta Orencio Vazquez Otero-k (2006) islatzen duen ideia bat barneratzea interesgarria dela uste dut.

“Organizazio baten gutxiengo erresponzabilitatea legiazio nazional eta internazionala zehatz-mehatz betetzea da. Enpresek inolako legiaziorik ez dagoen eremuetan jarduten dutenean, edo eremu sozial edo ingurugiroan arau baxuak dituzten hirietan, eta kontrol eta ikuskapen mekanismo nahikoa ez dutenean indarreko legiazioa betearazteko eremuetan sortzen dira arazoak.”

Nire ustez, banka klasikoa aztertzerako orduan hau buruan barne izateak beste ikuspuntu bat edukitzera eraman gaitzake. Erakunde finantzario klasikoek, benetan nahi dutelako jorratzen dute erantzukizun soziala? Edota behar bat bezala hartzen dute? Kasu asko daude Espainia mailan, baina lan honetan ez gara sartuko horrelako debate batean. Hala eta guztiz ere, nahi dugun konparazioa egiteko, hau kontuan eduki behar dugu. Banka klasikoen “erantzukizun soziala” normalean diru emate eran ikusi dezakegu. Ikasle bekak


edota herri proiektuko diru laguntzak izaten dira ohikoenak, hau da, beraiek lan egiteko duten eran ez dugu ikusten benetan non dagoen erantzukizun sozial hori. Argi dago banku asko daudela, eta denak ez direla berdinak, baina hemen azaldu dena banku klasikoaren “estandar” bat dela esan dezakegu.

Zer dela eta? Modu errazena delako horrelako erakundeentzat duten alde “sozial” hori erakusteko, askori puntu hau jorratzea derrigorrezko zerbait dela iruditzen zaie, merkatuan barneratuan dagoelako. Hori dela eta, oinarrizko jardueretan ez dute barneratzen erantzukizun sozialaren ikuspuntua, espekulazioan oinarritzen dira eta gainera kredituak ematerakoan ez dute inongo filtrorik erabiltzen.

Oso ikusgaitza den analisi bat egiteko, Espainia mailako bi banku tradizional handienak aukeratu ditu, Santander eta BBVA. Bertan, azkeneko urteetan denboran zehar honelako gaitan sorturiko aldaketa ekonomikoak ulertuko ditugu.

Irudia 3 Banka tradizionalak utzitako dirua sozietatean

Sozietatean inbertitutako dirua (milioi €-tan)



Iturria: Egileak berak egina, informe anual 2016, 2017 & 2018 datuetan oinarrituta


Grafiko honetan bi banku (Banco Santander eta Banco BBVA) ikusi ahal ditugu, grafikoak isladatzen duena sozietatean (pertsonean) inbertitutako milioika euroak dira, eta oso begirada txiki bat emanez gero, esan genezake joera beherakorra dela, eta denbora igaro ahala gutxiago inbertitzen dela. Hau harrigarria iruditzen zait kontuan izanik gure sozietatea gero eta kritikoagoa dela eta gero eta gehiago baloratzen dituztela oinarrizko jardueratik kanpo dauden kontuak.

Bi banku ezberdin izen arren nolabaiteko zerikusia dute, 2016tik 2017ra ez dute aldaketa handirik izan, nabarmentzekoa da nola BBVA-k aldaketa txikia izan arren beraientzat positiboa da, hau ez da gertatzen Santanderren kasuan, non

aldaketa txikia izan arren negatiboa da. Beste puntu bat ere badute amankomunean, 2018. urtean lorturiko emaitza. Sozietatean utzitako diruan izan duten beherakada latza izan da. Zer dela eta honen arrazoia? Ekonomikoki bizi ari diren egoera al da honen atzen dagoen azalpena? Hori ulertzeko hurrengo grafikoa ikusiko dugu, non inbertitutako dirua/irabazi garbiak islatzen dituen.

Irudia 4 Banka tradizionalak proportzionalki utzitako dirua sozietatean

Sozietatean inbertitutako dirua/irabazi garbiak (%)



Iturria: Egileak berak egina, informe anual 2016, 2017 & 2018 datuetan oinarrituta

Orain argi eduki dezakegu beraien egoera ekonomikoa ez dela izan honen atzean dagoen arrazoia, gainera bi bankuek izan dituzten emaitzak azkeneko 3 urteetan positiboak izan dira, eta hauek handituz joan dira (informe anual de los bancos Santander y BBVA 2016 2017 2018).

Termino absolutuetan Santanderrek BBVA-rekin alderatuz sozietatean utzitako diru kantitatea handiago den arren, proportzionalki alderantzizkoa gertatzen da. Hau da, Santanderrek banku bezala baliabide gehiago dituen arren erabilera txikiagoa ematen dio akzio sozialetan eta hori argi ikus dezakegu aurreko grafikoan. Tendentzia ikusten badugu, ez bakarrik kantitate (termino absolutuetan) eran, baita proportzionalki inbertitutako diru hori ere behera doa. Urteak igaro ahala emaitza hobekak lortu arren, sozietatearekin zerikusia duten gaitzetan uzten duten diru kantitatea behera doa.

2.3.1 Erantzukizun sozial korporatiboa banka etikoan

Aurreko kasuan bakarrik sozietatean inbertitutako dirua ikusi dugu, baina zer alde dago banka klasiko eta etikoaren artea? Etikoetan ez dugula bakarrik kontuan hartzen inbertitutako diru hori, banka osoa hartu dezakegu kontuan. Aurrean

aipatu dudan bezala banku tradizionalak eginiko laguntza sozial horiek bere oinarrizko jardueratik kanpo daudela bereizi ditugu, baina ez da hori gertatzen banka etikoetan. Inpaktu sozial hori barneratua dago beraien oinarrizko jardueratan. Dirua eskuratu, erabili, eta kredituak emateko orduan, hau da, hasieratik bukaeraraino eginiko pausu guztietan dago inplementatuta erantzukizun sozial hori.

Honez gain, banku etikoek filosofia batzuk izaten dituzte amankomunean, beste bankuengandik bereizten dituztenak. Horretarako, Fiare eskaintzen dizkiguten baloreak erabiliko ditugu erreferentzia gisa (Fiare Bancaetica, s.f.).

Gardentasuna:

Gardentasuna da banka etikoen eta beraien interes taldeen artean dagoen komunikazioa definitzen duen hitzik egokiena. Interes taldeen informazio eskubidea onartzen dute, une oro informatuak egon daitezzen, horrela bankuak hartutako aukera eta jokabideak baloratu, eta hori kontuan hartuta libreki eta modu informatu batean bozkatu ahal izateko.

Erantzukizuna:

Organizazio osoaren eta akzio ekonomikoetatik lortutako emaitza ez ekonomikoetan elkarlanean aritzen diren pertsona guztien zaintza konstantea, hau da, bitartekotza finantzarioa eta enpresa aktibitateak sortu dezaketen inpaktu sozial eta ingurugiroekin kontua izatea. Interes talde guztien onura bilatzeko eta hurrengo generazioak eta ingurugiroa errespetatzeko.

Partizipazioa:

Partizipazioa eskubide errekonozimendu bat bezala kontsideratu daiteke, horrela akzionistek, lankideek eta aurreztaileek aukeraketa prozesuetan parte hartu ahal izango dute. Gainera interes taldeek paper aktibo bat garatzen dute misioaren lorpenean, diruaren erabilera arduratsu baten bidez.

Pertsonan zentratzea:

Banku etikoen oinarrizko lotura bezala bezero eta beste interes taldeekiko, honek pertsonak errespetatu, onartu, zaindu eta pertsonen arteko erlazio ez indartsuak sustatzen ditu. Hau kontuan hartuta garatzen da modelo ekonomiko bat sozietatean eta ingurugiroan oinarrituta dagoena.

Ekitatea:

Baliabide eta diruaren banaketa juxtu bat bilatzea, sortu daitezken desberdintasun sozialei aurre egiteko, eta bakoitzak bere bizian plan propio bat egin dezan baliabide berriak lortzeko intentzioarekin, hori bai, beti ere pertsonak eta beraiek egindako ekarpenak errespetatuz, bai ekonomikoki, sozialki eta bestelako terminoetan.

Kooperazioa:

Kooperazioa kasu honetan kontzientzia eran azaltzen dute, ongizate amankomuna lortzeko unitate moduan lan egin beharrean, talde bat bezala egin behar da lan. Horrela lortu ahalko dira benetako aldaketak, taldeanarekin hurrunago iritsiko gara.

Solidaritatea:

Besteen azalean sartzean datza, hau da, desabantaila egoera batean dauden pertsonen identifikazioan zentratzen da. Horrela, egoera horri aurre egiteko eta bi aldeek onura bat izan dezaten, ekonomikoki edo sozialki ere. Behar duenari laguntzen saiatzea.

Urritasuna:

Bizi estilo bat bezala, hau, denen beharrak bilatzean datza, eta hori lortzeko dauden aukerak denen ongizatea bilatuz egitea. Ekonomi iraunkor batean oinarriturik, horrez gain, baliabideen erabilera gutxitzen eta horien erabilera on bat izaten, adibidez energia berriztagarriak sustatuz, kalitatea bilatuz eta ez bakarrik kantitatea, erakutsiz monetarioa ez dela garrantzia duen gai bakarra.

Efikazia y efizentzia:

Erabilitako baliabide danek ahal dutena esprimitzea bi aldeek lortuko duten errentagarritasuna bermatzeko.

Laburbilduz, banku etiko batek alde guztien ongizatea lortzea nahi du, baita bera ere. Baina hori lortzeko erabiliko dituen bideak egokiak izan beharko dute, eta pertsona eta ingurugiroarekin bat izan beharko dira, dituen baliabideak dakien bezain ondoen erabiliz.

Banku etiko bat zer denari buruz dudarik balego, argi geratu dadin hona hemen bi banku etiko ezberdinek beraien burua aurkezteko erabilitako definizioak

“Los bancos éticos buscamos situar a las personas en el centro de nuestra actividad, teniendo en cuenta también el impacto de nuestra actividad en el medio ambiente. Somos entidades financieras que, por un lado, captamos fondos de ahorro e inversión y, por otro, concedemos financiación a empresas, proyectos y organizaciones que necesitan recursos para su actividad económica y contribuyen a mejorar la calidad de vida de las personas y a proteger la naturaleza (Triodos Bank, s.f.)”

“Ser una herramienta al servicio de la transformación social a través de la financiación de proyectos de la economía social y solidaria y la promoción de una cultura de la intermediación financiera, bajo los principios de la transparencia, la participación, la democracia y el crédito como derecho.

Sabemos bien que toda decisión económica es una decisión ética, asumida desde un marco de convicciones y cuyas consecuencias favorecen a unos y perjudican a otros. Nuestro objetivo es recuperar el valor social del dinero. Es

por ello que los depósitos de ahorro de las personas y organizaciones que compartimos estos principios, sirven para financiar el desarrollo cooperativo, los valores transformadores, la agroecología, la cooperación al desarrollo, el comercio justo y la lucha contra la exclusión social (Fiare Bancaetica, s.f.).”

“De forma sintética, podríamos definir un banco ético como la institución que invierte o presta dinero, exclusivamente, con finalidad social o ética; sin renunciar necesariamente a finalidades estrictamente financieras. Emeterio, J. y Retazola, J.L. (2003).”

Hau da, banka etikoak erantzukizun sozialean aktiboki parte hartzen duela esango nuke, funtsa, proiektu eta kreditu etikoetan inbertituz, eta bestelakoak baztertuz, edo ikusi ditugun estrategia ezberdinak aplikatuz. Horregatik, esaten dut jardueraren barne dagoela, banka etikoei erantzukizun sozialarekin bat egiten dute hasieratik bukaeraraino.

2.4 Banka etiko eta tradizionalaren arteko desberdintasunak

Behin ulertuta zer den erantzukizun soziala eta nola erabiltzen duten kontzeptu hori desberdintzen ari garen bi banku mota hauek, beraiek teorian duten desberdintasunak nabarmenduko ditugu.

Emeterio, J. y Retazola, J.L. 2003. urtean aipatzen duten bezala, bi banku hauen arteko desberdintasuna ez dago eskaintzen dituzten produktuetan, ezta barne egituran ere. Non dago, orduan, oinarrizko desberdintasun hori? Bien arteko bisioan (San Emeterio & Retolaza, 2003).

Zergatik da finantzen mundua hain garrantzitsua? Finantza erakundeak diruaren eta aktibitate ekonomikoen arteko loturak dira, hau da, beraien kreditu eta inbertsioen bidez aktibitate ekonomikoak alde batera edo bestera jo dezakete (Ochoa Berganza, 2013, 126 orr.).

Sektore batzuetara edo besteetara mugitu dezakete dirua, herrialde batzuetara bai eta besteetara ez, eskuzioa sortuz. Zer eragin dauka horrek? Sektoreak aukeratzeko gaitasuna badute, erabaki ahal izango dute armak finantzatu nahi dituzten ala ez, gerran dagoen herrialde bati dirua eman nahi dioten ala ez. Munduan sekulako inpaktua dute, baita zekulako boterea ere.

Finantzen mundua bokazio eran jaio zen, finantzazioa behar zuten proiektu produktiboei laguntza eskaintzeko, baina neoliberal kapitalista ideologia barneratzen hasi zenean finantzen munduan pentsatzeko era ere aldatu egin zen. Globalizazioa, mozkin maximoa eta espekulazioa, hiru hitz horiek bultzatu dute banka hainbat herrialde baino indar gehiago edukitzera (Ochoa Berganza, 2013, 126 orr.).

Enpresa handiek, txikiek edota gobernu berak ere lotura badute bankuekin, (kreditu baten beharra edo kreditu bat bueltatzea) dependentzi bat sortu daiteke, eta erabakiak hartzerako orduan objetiboak ez izatera eramaten ditzateke. Honekin azaldu nahi dudana, ekonomia batean ze puntu arte eragin dezaketen da.

Dakigun bezala banka tradizionalen lehentasuna mozkinak lortzean datza, akzionistek hala nahi izaten dute eta, hauek presio handia sortzen dute bankuan. Banka etikoan aldiz sozietatean ongizatea bilatzen da. Hala ere, Alejos, C. ren ideia bat aipatu behar da, banka etikoentzat errendimendu ekonomikoa errendimendu soziala bezain garrantzitsua da, biak bateratzea eta aldi berean ematea da banka etikoaren karakteristika bereizgarri horiek sortzen dituenak. (Muga Carrasco, 2016)

Beraz, non ikusi ditzakegu bi banku hauen arteko lan egiteko ezberdintasunak?



Dirua lortzeko iturriak:

Azkeneko urteetan bankuek sarrera iturri ezberdinak erabili dituzte beraien jardueretarako. Ohikoenak bezeroen kontu korranteak ala bezeroek erositako produktu finantzarioak izan ohi dira, inbertsio funtsak bezalakoak adibidez. Horrez gain, beste batzuk ere badaude, baina espekulazioan oinarrituak, banku klasikoak etxebizitzaren merkatuan sartu zirenean, honen ideia bat egiteko 2018. urtearen amaieran banku eta inbertsio funtsen artean 240.000 etxe kudeatzen zituzten (Público, 2018). Hau dudarik gabe beste diru sarrera garrantzitsu bat izan da bankuentzat, esan beharrik ez dago banku etikoak ez direla mundu horretan sartu, espekulazioan oinarritutako aktibitateak baztertzen dituzte eta. Baina, ezberdintzen ari garen bi banku hauek (etiko eta klasiko) batzuetan iturri antzekoak erabili dezaketen arren, horiek erabiltzeko eran dator benetako ezberdintasuna.

Emandako erabilpena:


Aurreko puntuarekin jarraituz, behin dirua edukitzerakoan berrinbertitu egiten dute, kredituak emanez, edota inbertsoen bidez. Kredituen biderapenaz hurrengo puntuan jorratuko dugu, baina ze inbertsio mota egiten dituzte banku klasikoek? Beraien irizpideak arriskua eta errentagarritasunean oinarritzen dira, kapitalistak dira, mozkinak dira bereaien lehentasuna. Beraz, beraien inbertsioek ez dute inongo iragazkirik pasatzen, posible da inbertitutako diru hori armak finantzatzen ari den funtsa batean egotea, edota gerran dagoen herrialde bati lagundu izatea. Horrez gain, inbertsio horiek ez dute zertan sozietateari edo ingurumenaren alde egon beharrik, banku etikoen kasuan, eginiko diru mugimendu denak horren alde jotzen dute, eta hori bermatzen saiatuko dira.

Ze inbertsio mota egiten dituzte banku etikoek? ISR inbertsioak (Erantzukizun sozial inbertsioak). Irizpide finantzarioez gain, inbertsio hauek irizpide sozial eta ingurumen irizpideak ere barneratzen dituzte. Horrela, entitate edo bezero inbertitzaileek misioaren lorkuntzan lagundu dezakete. Iragazki eta irizpide horiek ASG irizpideak izan daitezke, aipatu ditugun bezala.

Kredituen biderapena:

Kredituak banku baten oinarritzko jarduera izan beharko lirateke, eta hala da banku etikoetan, baina ez banku klasikoetan. Banku etiko eta iraunkorren jarduera gehienak kreditu emateak dira, aldiz klasikoetan espekulazioan oinarritutako inbertsioak daudela kontuan edukitzen badugu, kredituak hain garrantzitsuak ez den paper bat izatera pasatu dira. Kasu honetan, kredituak ematerakoan duten ikuspegian dago benetako aldea.

Irudia 5 Banku klasikoaren eta etikoaren ikuspegiak



Argiago ikusteko, hemen irudikatu dudan irudiari erreparatuko diogu. Ezkerraldean banku klasiko batek kreditu bat ematerakoan duen ikuspegia dugu. Ikusi dezakegunez, bankuari (bere buruari) dudarik gabe erreparatuko dio, errentagarritasun bat lortuko duen eta erakundeetarako zenbateko arriskua suposatuko duen planteatuz. Bezeroarekiko, erdiraino marraztuta dago, posible delako bezeroaren onuran pentsatzea ala ez, baina argi dagoena hirugarren puntua da, kanpoko faktoreak. Ez da ohikoa banku klasikoaren puntu hau jorratzea kreditu bat ematerako orduan. Lehendabiziko puntuak hainbesteko pisua dauka, non besteen gaintik igarotzen dela esan dezakegula.

Banka etikoan aldiz, aipatu dugun bezala errentagarritasun bat ere bilatzen du, beraz bere buruari erreparatuko dio, banku klasikoek bezala operazio errentagarria edo arriskutsua den begiratuz. Bezeroen aldetik beti bilatuko dute bezeroaren ongizatea, ez dituzte beraien interesak aurretik jarriko bezeroari kaltetuz. Azkenik, kanpoko faktoreei buruz, kreditu bat ematerakoan, beti hauek errespetatuz eta irizpide batzuen atzetik egingo dituzte mugimendu gutziak, sozietatea eta ingurumena beti buruan edukiz.

Bestelako desberdintasun teoriko batzuk ikusteko web orrialde batetik ateratako informazioa taula batera pasatuko dugu.

Taula 2 Bi banken arteko ezberdintasunak

Banka tradizionala	Banka Etikoa
Inbertsioekin espekulatu egiten dute, errendimendu handiago bat eduki dezaten.	Ekonomia lokalean eta Banka tradizionalentzat hain interesgarriak ez diren inbertsioak egiten dituzte (ez dute bakarrik errendimendua kontuan hartzen).
Soldata ezberdinen artean sekulako diferentzia	Soldata maximo bat dago eta ,beraz, horien artean dagoen diferentzia txikiagoa da
Inbertsore (akzionista) handiak dituzte eta hauek inbertituriko diruagatik interes edota mozkin batzuk bueltan nahi dituzte	Inbertsore txikiak eta partikularrak izaten ohi dituzte, gainera askok lorturiko dibidenduak bueltan ematen dituzte
Erabaki garrantzitsuak hartzerako orduan akzionista handi gutxi batzuk izaten dute boterea	Erabaki garrantzitsuak hartzerako orduan demokratikoki (Kreditu kooperatiba eran) erabakitzen dituzte
Transparentzia arazo bat izaten da entitate hauentzat, non dago inbertitua bere dirua?	Bere kontu eta inbertsioak beti daude ikusgai interneten bidez, transparentziarako arazorik ez
Berankortasun ratio (morosidad) handiago bat izaten dute, Espainiako media %7.78 (Fiare Bancaetica)	Banku etikoen emankortasun ratioa aldiz txikiagoa da, 2017. urtean Fiarek %0,89 ratioa izan zuten (Fiare Bancaetica)
Banku tradizionalak erreskateak behar izan dituzte beraien egoeratik irteteko, espekulazioan oinarritzen dituztelako beraien inbertsioak	Banka etikoak ez du inongo erreskaterik behar izan, ekonomia erreal batean oinarritzen dira eta, datu hau bere kaudimena sendotzen du, hori dela eta, gero eta erakunde publiko gehiago fidatzen dira horrelako entitateetaz.

Iturria: Egileak berak egina, (eldiario, 2015) datuetan oinarrituta

Hemen ikusitako puntu gehienak teorikoak izan dira, baina zer nolako aldaketak ikus ditzakegu zenbaki aldetik? 2018. urtean ateratako *las finanzas éticas y sostenibles en europa: Segundo informe-k* oso datu interesgarriak erakusten dizkigute.

Taula 3 Maileguak aktibo totalen %-tan

MAILEGUAK/AKTIBO TOTALA	2017	2012	2007
Banku etikoak	%76,94	%75,50	%66,72
Banku tradizionalak	%40,52	%35,30	%32,43

Iturria: Egileak berak egina (ETHICAL AND SUSTAINABLE FINANCE IN EUROPE, 2018, 15 orr.), datuetan oinarrituta

Bi bankuen arteko desberdintasunetan, ekonomi erreala hitza erabilitakoan hau azaldu nahi nuen. Hemen ikus dezakegu banku etikoen aktiboen ehuneko zenbat diren eskainitako maileguak. Argi ikusten da zer nolako diferentzia dagoen, banka etikoan aktiboen %76,94a(2017) maileguetara doa, hau da, proiektuak finantzatzeko. Bankuen aktibitate gehiena sozietate eta ingurugiroarekin bat egiten duten proiektuetara doa.

Banka klasikoan aldiz ia erdia da, %40,52 (2017), honek esan nahi du banku hauen aktibo gehiena ez dagoela maileguetan barneratua, bestelako inbertsioetan baizik. Hemen ikusten dugu nola banku klasikoek errentagarritasun ekonomiko handiago bat lortzeko espekulazio eta bestelako proiektuetan parte hartzen duten, ekonomi ez errealean. Urte horietan gertatutako diferentziak ez dute inpaktu handirik izan. Aipatzekoa da biak egiten dutela gora, baina banka etikoen kasuan igoera hori pixkat handiagoa da.

Taula 4 ROA

ROA – RETURN ON ASSETS	2012-2017 (5 urte)	
	Media	Desbiderazio estandarra
Europako banku etiko eta iraunkorrak	%0,47	%0,08
Europako banku tradizional garrantzitsuak	%0,05	%0,02
	2007-2017 (10 urte)	
	Media	Desbiderazio estandarra
Europako banku etiko eta iraunkorrak	%0,42	%0,13
Europako banku tradizional garrantzitsuak	%0,06	%0,04

Iturria: Egileak berak egina (ETHICAL AND SUSTAINABLE FINANCE IN EUROPE, 2018, 16 orr.) datuetan oinarrituta

ROAk ekitaldiko emaitzak aktibo totalarekiko duen presentzia ehunekoetan neurtzen du. Taulari begira ikusi ahal ditugu krisi aurreko eta ondorengo urteen datuak (krisia bukatutzat emanez, gaur egun ondorioak jarraitu arren). Lehendabizi, aipatzea banka etikoek ROA batzbesteko handiago bat dutela, baita desbiderazioa ere. Krisia erdian egon arren, batzbestekoa kontserbatu

egiten du, hori ekonomi erreal batean inbertitzearen ondorio bat da. Aldaketa txikiagoak izan ohi dituzte beraien emaitzetan, hau da, leunagoak izaten dira. Espekulazioan inbertitzea emaitza hobekak ekar ditzake, baita okerragoak ere.

Bi emaitza ezberdinak konparatzen baditugu (2007-2017 eta 2012-2017) azkeneko urteetan zehar izan dituzten joerak ulertuko ditugu. Hau da, azkeneko 5 urtetan izandako datuak batzbestez izandako aldaketa. Banku etiko eta iraunkorren kasuan batzbestekoa igo egiten da %0,42tik %0,47ra, azkeneko 5 urtetan izandako datuak positiboak izan dira eta batzbestekoa gorantz bultzatu dute. Banku tradizionalen kasuan jaitsi egiten da %0,06tik %0,05era, azken urteetako datuak negatiboak izan dira aurreko batzbestekoarekin alderatuz, eta horrek batzbestekoa beherantz bultzatu du.

Aipatu dugun bezala, banku etiko eta iraunkorrek desbiderazio estandar handiago bat dute, estabilitate txikiago bat duten irudia emanez, baina hau ez da horrela, zer eginiko aldaketa positiboa da, %11 igo da. Ez banku tradizionaletan bezala non aldaketa hori negatiboa izan den, %16a jaitsiz. Azkeneko 5 urteei erreparatuz aipatu behar da banku etikoek izandako media 9,4 aldiz handiagoa izan dela banku tradizionalena baino.

Taula 5 ROE

ROE – RETURN ON EQUITY	2012-2017 (5 urte)	
	Media	Desbiderazio estandarra
Europako banku etiko eta iraunkorrak	%4,36	%1,18
Europako banku tradizional garrantzitsuak	%0,90	%0,31
	2007-2017 (10 urte)	
	Media	Desbiderazio estandarra
Europako banku etiko eta iraunkorrak	%3,98	%1,24
Europako banku tradizional garrantzitsuak	%1,23	%1,05

Iturria: Egileak berak egina (ETHICAL AND SUSTAINABLE FINANCE IN EUROPE, 2018, 16 orr.) datuetan oinarrituta

Kasu honetan ROE daukagu, honen kalkulurako mozkin garbiak eta fondo propioak erabiliko ditugu. Gure mozkin garbiak fondo propioen ehunekoetan zenbat suposatzen duen isladatzen du, honekin kapitaleko euro bakoitzak mozkinetan duen eragina azkar ikusi datiteke. Ratio hau oso garrantzitsua izaten da akzionistentzat, beraiek lortuko dituzten sarrerekin lotuta dago eta.

Gure taulaz hitz egiten badugu, harrigarria da banku etikoek duten egonkortasuna, bai krisi aurretik, krisi bertan eta ondoren. Alderatuz, esan behar da banku tradizionalen krisi aurretik zituzten emaitzak oso positiboak zirela, inflazioa eta espekulazioa momentu gorenean zeuden, eta hori ederki aprobetxatu zuten, baina eztanda egin zuenean sekulako beherakada izan zuten, eta oraindik ez dute berreskuratu krisi aurretik zeukaten egoera.

Zenbakiei arretoa jarriz aurreko taulan komentatutako ondorioen oso antzekoak dira. Jasotako bi datuak aztertuz (2007-2017 eta 2012-2017) banku etiko eta iraunkorren ROE-k %3,98tik %4,36ra igaro zen, hau da, azkeneko 5 urteak bakarrik aztertzea %9,54 hazkuntza erakutsi du. Banku klasikoaren ROE-k %1.23tik %0.90ra igaro da, hau da, %26,82ko beheraketa izan du bere batzbestekoa azkeneko urteak barneratzean.

Hiru taulak batuz egin dezakedan irakurteta hurrengo da: Krisia aurretik banku klasikoek emaitza hobekien lortzen zituzten. Baina egoera txartu egin zenean banku egiteko beraiek zuten era eutsiezina zen. 6. taulan ikusi ahal dugun bezala, zituzten maileguak ez ziren iristen aktiboaren %50ra. Eta merkatuak eztanda egin zuenean horrek izan zuen eragina ikusi zen.

Krisia hasi zenean banku klasikoak aurretik eraman zituen, zenbaki denak behera egin zuten, eta, gainera, hurrengo urteetan zehar beheratzen jarraitu zuten. Sekulako dependentzia erakutsi zuten egoera ekonomiarekiko.

Banku etiko eta iraunkorrek aldiz, azkeneko 10 urteetan datu hobekien erakusten dituzte beste bankuarekiko, baina benetan aipagarria dena urte horietan izandako emaitzak dira. Bai ROA eta ROE-n azkeneko 5 urteetako emaitzen barnerapena batzbestekoak gora bultzatzen ditu. Ekonomia errealean oinarritzeak dependentzia txikiago bat ekartzen du, eta beraz, egoera okerre aurka egiteko aukera gehiago dauka. Laburbilduz, banku etikoak krisia hobeto jasan, eta gainera bertan emaitzak hobetu egin daitezkeela erakutsi du. Eta hori dena sozietatea eta ingurugiroa errespetatuz.

2008. urteko krisia:

Zergatik sortu zen krisia hau? Etikak bankuaren ekonomian eraginik al dauka?

Espaniako produktu barne gordina etengabe igotzen joan zen 1994tik 2007ra (Expansión, 2019), hau da, estatuak zuen egoera ezin hobea zen, bai momentu horretan eta nola ez etorkizunari begira. Honek gehiegizko konfiantza bat ere sustatu zuen jende artean, hala ere, ezin dugu esan hau krisiaren arrazoi bat denik.

Baina 2007ko abuztuaren 9an dena behera erori zen, estatuak zuen ekonomi sistema "gogo" eta "distiratsu" hura milaka puskatan autsi zen. Bankuak diru gabe geratu ziren, interes motak gora egin zuten, eta nola ez, ekonomiaren gorpila zena gelditu egin zen. Munduan ezarritik zegoen sistema ekonomiko kapitalistak zituen ahuleziak argi ikusi ziren momentu horretan.

Bankuen arazoak ez dira hor gelditzen, honi gehitu behar zaio banku askoren bezeroak beste banku batzuk zirela ere, edota inbertsore instituzional handiek. Honek, bankuen artean hedatzen ari zen beldur haize horri indarra eman zion, eta estatua derrigortua izan zen diru kantitate izugarriak injektatzera, behin krisi notizi hura kaleratua izatean pertsonak paniko egoera bat izan ez zezaten eta denak bankuetara jo ez zezaten beraiek gorderik zuten dirua ateratzea. Hortik aurrera, egoera bakarrik handiagoa egiten zen elur pilota bat izatera pasatu zen. Bankuen egoera zela eta maileguak emateari utzi zioten, likidezia behar handia zegoelako.

“Los bancos empezaron a restringir la concesión de créditos porque el propio proceso especulativo convirtió en insolventes a los ciudadanos” (Eumed, s.f.).

Beraz, kontsumitzaileek 14 urte “zoragarri” horiek eta gero erosteari utzi zioten, enpresek bezero falta antzeman zuten, eta nola ez jendea soberan zegoela zirudien. Hori dela eta, jendearen kaleratzea, eta enpresa askoren itxierak ikusi genituen. Eta zer eragin izan zezakeen honek baketan?

Beraien diru iturria dagoeneko zituzten maileguak ziren, baina merkatuak, eta pertsonak dirurik ez bazuten, nola egingo zioten aurre beraien maileguei? Beraz, hauek zituzten sarrerak behera egin zuten. Bankuak kaudimena bilatu nahian juxtu kontrakoa lortu zuten, (Eumed, s.f.)

Hau dena eta gero, hala ere, ez zioten kulpa bota nahi sistema ekonomikoari, ez zuten nahi aitortu kapitalismoa krisi batean bukatu behar duenik, baina jendeak arrazoi bat jakitea behar zuten, arazo hau konpontzeko “hipoteka subprime-etan” zentratu ziren, eta zirudienez hura zen krisi dana eragin zuen arraozi bakarra. Baina, ez dago dudarik honen atzean gehiago dagoela.

Ekonomista ortodoxoek uste zuten krisia baino lehen hainbesteko diru sarrerekin egoera erlaxatu egin zela, eta horrek banku praktika onekin bukatu zuela. Bankuek kaudimen gutxi zuten bezeroei maileguak eskaintzen hasi ziren, jakinda oso posible zela hauek arazoak izatea gerora, baino egoera hain ona zen konfiantza gehiegi zegoela airean. Hauek subprime hipotekak izan ziren, bankuek zegoen desregularizazio finantzarioa aprobetxatu zuten produktu finantzario berriak sortzeko, eta diru gehiago nahian hipoteka horiek titulizatu egin zituzten. Hipoteka horiek merkatu internazionalen bukatu zuten, eta beraz inbertsore askok ez zekiten non zegoen bere dirua ere, titulu horiek beste batzuekin nahasten zen, eta ,horrela, produktu finantzario berri horiek kaleratzen zituzten, inbertsio ona zela ematen zuen, baina jendeak ez zekien benetan zer zegoen honen atzetik.

Beraz, aktibo berri hauek (gehienak Estatu Batuetan) munduan bira ematen hasi ziren, arazoa gero etorri zen. Subprime hipoteka horiek ez ordaintzen hasi zirenean, bankuak dirurik gabe geratu ziren, eta kaudimenik gabe. Inbertsoreei ezin zieten ordaindu eta aktibo horiek, azkenik, eztanda egin zuten. Atzean zeuden banku, inbertsore eta pertsonak arrastratuz. Hemendik lortzen dugun ondorioa hurrengo da: subprime hipotekak hartu zituzten pertsonak ez ziren izan krisi honen zergatia, krisi honen kaltetuak baizik.

Hedabide ofizial askok aipatzen duten bezala, krisi hau etika falta kasu bat izan da, honi profesionalitate falta eta gaur egun finantzen munduak duen globalizaioa gehituz gero, izan dugun krisia lortuko dugu.

Hemen barneratu ditzakegu pentsatzeko era ezberdinak zer nolako eragina izan dezaketen. Ezkerraldeko sektorearentzat etxebizitzaren arazoaren irtenbidea herritarrei sarbide errazago bat ematea zen bitartean, beste sektorearentzat irtenbidea hauen prezioa ez beheratzea zen. Batzuek etxebizitza ez zuten horietan pentsatzen zuten, eta beste aldean dagoeneko etxebizitza bat zuten pertsonetan pentsatzen zuten.

Banku etikoek hemen azalduta ikusi dugun inflazio eta espekulazio horri uko egin zioten, beraien fokua pertsonetan eta ongizatean dago eta (bi aldeek, bai banku eta bezeroak errentagarritasun bat lortuz), beste aldetik banku tradizionalak ditugu, beraien fokua errentagarritasunean zentratua dago, eta beraz horrelako egoera bati ezin zioten uko egin, pertsonen ongizatea alde batera utzi, eta diruan bakarrik zentratzea horrelako egoera batera eraman gintuen. Ekonomia erreala batean inbertitzeak, bere abantailak izan zituen banku etikoentzat, aurreko puntuan ikusi dugun bezala, sekulako estabilitatea erakutsi zuten, eta etikak merkatu finantzario batean eduki dezaken garrantzia frogatu zuten.

Azkenik, bi banku hauen artean jorratu nahi ditudan azkenengo gaiak eksklusio/baztertze finantzario eta soziala dira:

Zer da baztertze soziala?

Zientzia sozialetan baztertze soziala desabantaila egoera bezala ulertzen da non pertsona edo talde batek zailtasunak dituen funtzionamendu sozialek sistema batzuetan integratzeko. Sindikatu eta entitate ezberdin batzuek ohartarazi dute alderdi eta arrazoiak bat bazterketa finantzarioa dela, zeinek finantza etikoetako erakundeak kezkatzen dituen. Era honetara Banku Mundialek azaltzen du azken hamarkadetan ONG edo garapen komunitarioko beste instituzioez gain, "kooperatibek sistema honetatik baztertutako pertsonen aukera berriak eman dizkien zerbitzu finantzarioak eskaini dizkiote".

Datu harrigarrienak maila mundialean ikusten dira. Banku Mundilaren arabera, 2.000 milioi pertsonen, hau da mundu guztiko helduen %38-ak zerbitzu finantzarioak ez dituzte erabiltzen. Argitaratze batean entitateak dio "nahiz eta pertsona txiroek zerbitzu finantzarioetara iristeko zailtasun gehiago izan ditzaketen, hauek lortzeko beharra errekurso gehiago dituztenena baina altuagoa izan daiteke" izan ere finantzaziorako sarrerak " emakumeak jabetu, kontsumoa, inbertsio produktiboak, sarrerak eta produktibitatea handitu" ditzake.

Banku Mundialek datu erabakigarri bat eman du. Garapenean dauden herrialdeetako heldu abertsenen %20-ak txiroenaren %20-ak baino probabilitate bikoitza du kontu korronterako sarbidea izateko. Bazterketa soziala nabarmenagoa da maila mundialean, eta batez ere hegoaldeko herrialdeetan, baina baita, era neurrizkoagoan bada ere, lehen mundu izeneko herrialdeetan ere.

Baztertze finantzarioa garatutako herrialdeetan

Ekonomian katedraduna den Joan Ramon Sanchis-ek azaltzen du bankuetako berregituraketarekin 10.000 ofizina itxi direla, honekin 42.000 pertsona kaleratuz "efizientzia eta produktibitatea lortzeko helburuarekin". Ez dela benetako erreforma bankarioa egin kexatzen da, baizik eta kutxa sistema zaharreko enitate gehienak ezabatu direla, hau dena, bankuen onurarako, beraiek izan direlako hemendik irabazi dutenak. Honek kriterio produktiboak funtzio sozialen aurrean gailentzea dakar eta "biztanleriaren zati bat, orokorrean ahulena, zerbitzu finantzarioetarako sarbiderik gabe utzi du". Horrela berresten du Ahurrezki

Kutxetako fundazioetako ikerketa batek: 2012-tik sukurtsal bankarioen %23 itxi dira.

Sanchis-ek ateratako ondorioa hau da, zerbitzu komun eta proiektu sozialetan egiten diren inbertsioak atzetik duten bokazio hori momentu honetan entitate finantzario etikoetan eta kooperatibetan mantentzen da.

Honen emaitza 2,6 milioi pertsonetan transformatzen da, Espainiar estatuan baztertze finantzario bat bizitzen ari direnetaz hitz egiten ari gara, baita beste 12,1 milioi pertsonetan ere, kasu honetan pertsona azpi-atendituei egiten diogu erreferentzi, datu hauek Mastercard-ek eginiko ikerketa batetik lortu ditzakegu. Honek duen eskala egiteko, pentsatu mendebaldeko europan 93 milioi pertsona kalkulatzeko direla. Baztertze hau era eta arrazoi ezberdinengandik etorri daiteke, adibidez %40ak ez du jaso inongo diru sarrera edo laguntzarik azkeneko 3 hilabeteetan, beraz mailegu edota bestelako zerbitzu bat eskatzeko arazo asko izango dituzte. Aipatzekoa da baztertze taldeko pertsona gehienak emakumeak direla, %55a izan ere.

Beste alde batetik bazterte geografikoa daukagu, gainera azkeneko urteetan gora egin du krisiaren ondoren. Esklusio honetaz hitz egiten badugu, inongo ofizina bankarioa ez duten lekuetaz egongo gara hitz egiten. Gainera Espainia Europa mailan pertsonako sukurtsal gehienetakoa duen herrialde bat da. Baina lan honetan hitz egiten dugun bezala, ez da kantitatea arazoa izaten, kalitatea baizik. Horregatik non dauden kokatuta ikusi beharko genuke.

Baztertze finantzarioa banku etikoetan gero eta garrantzia gehiago hartzen ari den gai bat da, hauek beraien inbertsio lerroen bidez, edota irakaskuntzaren bidez kontra egiten saiatzen dira. Azkeneko urteetan zerbitzu finantzario sarbidean egon diren hobekuntza teknologikoak, mikrofinantzak, edo bako etiko eta kooperatiboak paper garrantzitsu bat izan duten arazo honi aurre egiteko. Egia da oraindik ere asko dagoela egiteko.

Zer egiten dute banku etikoek? Aipatu dugun bezala honi aurre egiteko eta arazo hau konpontzeko erabiltzen duten bidea mikrokredituak izaten dira. Herrialde azpigaratuetan (gehien bat) eskaintzen dituzte horrelako zerbitzuak. Askotan horrelako lekuetan oso diru kantitate txiki batekin negozio bat eratu dezakete, eta epe erdi / luze batera aldaketa handi bat suposatuz dezake. Argi dago horrelako zerbitzu bat ez dela izango errentagarritasun gehiena emango duena, ezta seguruenik ere, ordaintze arazoak ere izan dituelako. Baina hemen da banku etikoen alde hori atera eta ikusi ahal izateko aukera dugunean.

3 GAUR EGUNGO BANKA ETIKOAREN EGOERA

Puntu honetan Banka etikoak hainbat ikuspuntu ezberdinetatik dituen egoerak ikusiko ditugu, Europa mailan, Estatu mailan, baita Euskal Herri mailan ere. Eremu bakoitzeko banku hauen azkeneko urteetako emaitzen joerak, bezero aldaketak edota mailegu emate mailak aztertuko ditugu beste hainbat faktoreekin batera. Lehendabizi Banku etikoek Europan duten inpaktua baloratuko dugu, horrela Estatu mailan duen inpaktuarekin alderatzeko aukera izango dugu ondoren.

3.1 Banka etikoaren sorkuntza

Nola hasi zen banka etikoa? Zein izan ziren ideia hauek gauzatzeko behar izan ziren egoerak? Galdera hauei erantzuteko Triodos Bank webgunean Joan Antoni Melé-k duen informazioaz baliatuko gara.

Ekonomia etikaren adar bat bezala kontsideratua zegoen Jordy Alemanyk *Las finanzas éticas* (Melé-n aipatzen den bezala, 2012). Izan ere Adam Smith, gure gaur egungo ekonomia sortzaile izandakoa dagoen ekonomilaria, Glasgow unibertsitateko filosofia moraleko katedratikoa zen. Estatu Batuetan XIX. mendean b. komunitate erlijiosok ikusi zuten nola beraien dirua beraien ideien kontra zeuden funtsetan inbertituta zegoen (alkohola eta esklabotzan, hori dela eta, bere dirua kontrolatzen hasi ziren, eta kontzientzia hartzen. 60. Hamarkadan Vietnam-eko gerra dela eta, Sudafrikako regimenari oposizio egiten zutenak ONG, fundazio, eliza, eta pertsonetan erreflexio bat eragin zuten. Horiek, izan zirelako nahigabe horrelako gerra bat finantzatu zutenak, ez baizekiten non zegoen inbertituta bere dirua. Horren ostean Pax World Fund sortu zen, lehen funtsa etikoa kontsideratua dagoena (Melé, 2012).

Orain saiatu irudikatzen zuen buruan gerra baten kontra manifestatzen diren horiek, aldi berean eta inongo intenziorik gabe gerra bera finantzatzen ari direla jakiteak zer suposatuko lukeen beraiantzat. Esaldi zahar batek esaten duen bezala «Toda causa tiene su efecto; todo efecto tiene su causa» honekin azaldu nahi dut nola mugimendu edota ideia bat sortzeko, lehenbizi inflexio puntu bat egon behar den, gizakiak beti behar izan duela edozein motatako golperen bat begiak irekitzeko. Kasu honetan, Estatu Batuetan gertatutakoak eman zion jarraipena banka etikoari, eta ekonomi solidarioari bere osotasunean. Pentsatzeko era aldatzen joaten da eta jendea azkenena konturatzen hasten da zer dagoen bere inguruan. Ideia hauek geroago Europara hedatu ziren. Urteak igaro ahala, eta informazioa lortzeko erreztasuna dela eta, gero eta gizarte informatuago bat gara, eta bizitzan aukerak hartzerako orduan, horrek ondorio batzuk ekartzen ditu.

3.2 Hedapena europara

Europan ireki zen lehen banku etikoa eta iraunkortasunaren alde egiten zuena GSL bank izan zen. Ikusteko nola hasi zen banko etikoen hazkuntza hau Europan zehar, aurren honen istorioa ikusiko dugu, eta zerrek bultzatu zuen honen irekiera. Beraien orrialdean aurkitu dezakegun informazioan oinarrituz:

60. Hamarkadaren bukaeran Ruhr eskualdearen hegoaldean gertatu zen "mirari" ekonomikoa, aldaketa sozialak gero eta nabarmenagoak ziren: Ikasle kexak, bakearen aldeko mugimenduak, emakume eskubideen aldarrikapenak eta arrazismoaren kontrako pentsaera.

Pertsona talde batzuentzat banku ezberdin baten fundazioaren ideia gero eta posiblegoa zen. Dirua pertsonen eskuetara eraman nahi zuten, eta ez alderantziz. Bertako sistemari buelta eman nahi zioten, hori zen beraien nahia.

Waldorf eta Ruhrorf lehenengo eskolak ireki zituzten pertsonak dira. Beraien artean finantzatu zuten proiektua bertako bankuen finantzaziorik ez zutelako lortu une horretan. Bankuek ez zuten uste ideia ona zenik eskola doan bat irekitzea.

Entitate publikoen laguntza espero ez zutenez, beraien artean lagundu ziren, era solidario batean. Horrela Langendreer-eko hiribildu zahar bateko etxe bat aukeratu eta eskola bihurtu zuten. Gaur egun, oraindik Langendreer-eko eskola izaten jarraitzen du. Bertako lehen eskola izan zen, hori dela eta, denbora epe honetan ume askori lagundu diete beraien bizitzan aukera bat izan dezaten. Banku honek enpresa ugarien proiektuetan parte hartu du (GLS Bank)

3.3 Espainian dauden banku etikoak

Banka etikoa ofizialki 2004. urtean hasi zen Triodos Bank-en eskutik, hortik aurrera Fiare Banka etika, Oiko Credit eta Coop57 sartu ziren estatura. Esan beharra dago banka mota honek eboluzio positibo bat izan duela. Gainera, krisialdiak ondo jasan zituzten ekonomi errealean inbertitzeagatik, eta ez espekulazioan oinarritutako batean jarduteagatik. Aipatutako lau banku etiko hauek desberdin behar ditugu lehenbizi, Coop57 eta OikoCredit ez dira ofizialki bankarioak. Coop57 zerbitzu kooperatiba bat da eta OikoCredit instituzio finantzario eta kooperatiba mundial ez bankarioa da. Besteen kasuan, Fiare Bancaetica banku etiko eta kooperatibo bat da eta Triodos Bank banku europear independentea da. Hona hemen banku bakoitzeko sarrera txiki bat.

3.3.1 Triodos Bank:

Beraien web gunean azaltzen duten bezala Triodos Bank izan zen Espainian lehenbizi sartu zen banku etikoa ofizialki (Triodos Bank)

1968. urtean Triodos Bank izango zenaren lehen kontzeptua sortzen da. Adriaan Deking Dura ekonomista, Dieter Brüll zuzenbide fiskaleko irakaslea, Lex Bos organizazioaren inguruan espezialista eta Rudolf Mees banka bateko

direktiboak, ikasketa talde bat garatzen dute dirua era iraunkor batean nola kudeatu daitekeen ikertzeko.

Hortik urte batzuetara 1971. urtean mailegu eta donazioen bidez Triodos Fundazioa eratzen da, ekimen eta enpresa berritzaileei finantzazioa eskaintzeko intentzioarekin. Hortik aurrera, beste herrialdeetan zehar horrelako Triodos fundazioak eratzen joan dira. 1980. urtean, Triodos Bank sortu zen Zeist hirian (Herbehereak), Europarentzat banku etiko eta iraunkor arloan erreferente bat bihurtuko zena. Gaur egun, hainbat sukurtsal ditu, Herbeheretan, Belgikan, Erresuma Batuan, Espainian eta Alemanian. Horrez gain, agentzia bat dauka Frantzian. Bere inbertsio funtsa eta mikrokredituen bidez, Europatik kanpo, aktibitate intentsibo bat garatzen du Hegoaldeko Ameriketara, Asian eta Afrikan.

Triodos Bank bankuak libreki eta era arduratsu batean laguntza ematen dituzten proiektu eta enpresei finantzazioa eskaintzen diete. Proiektu horien adibideak hauek dira:

- Edozein eratako aktibitate kultural eta artistikoak.
- Ikastetxe, eskola eta bestelako hezkuntza ekimenak.
- Garapen pertsonal eta espiritualean oinarritutako ekintzak, beti ere pertsonen askatasunean oinarrituak badaude.
- Turismo eta aisialdirako aktibitate iraunkorrenak.

Banku honetan mailegu bat ematerako orduan analisi kuantitatibo eta kualitatibo bat egiten da lehenbizi. Finantzaketa proposamen bat aztertzerakoan ez dute bakarrik proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa edota enpresaren izena aintzat hartzen, baita inpaktu sozial, kultural eta ingurugiroan duen eragina ere.

Pertsonak, ingurumena eta errentagarritasun ekonomikoa kontuan hartzeak sortzen duen hirukote hau, banku honen izenean islatuta dago, Triodos "triple vía".

Ikusi ditugu Banku honek zer nolako proiektuak finantzatzen dituen, baina aipatu beharra dago existitzen direla proiektu ezberdinak erakundearen balioak partekatzen dituztenak baina ikuspegi finantzarioaren aldetik onargarriak ez direnak. Gogoratu behar dugu banku etiko batek errentagarritasun ekonomikoa bai bilatzen duela, baina era garbi batean lortuz. Proiektu mota horietako sustapenarekin Triodos Fundazioa sortu zen. Fundazio honen jardura nagusia partikularrek eta erakundeek emandako dirua bideratzea da, bai fundazio berari edota irabazi asmorik gabeko bestelako erakundeei. Modu horretan, gizarte eraldaketarako ekimenak finantzatzen jarraitu ahal izango dute. Horrez gain, Triodos Fundazioak dohaintza txikiak sustatzen ditu hezkuntza lorategietarako eta gizarte-nekazaritza proiektuetarako crowdfunding plataformaren bidez.

Espainia mailan A Coruña, Oviedo, Bilbao, Panplona, Bartzelona Madril, Kanariar uharteetan... topa ditzakegu sukurtsalak, hau da, banku presentziala dela esan genezake bere sukurtsal sarea dela eta.

3.3.2 Banka fiare

Euskal Herrian finantza-etikoetan interesa zuten hainbat talde elkartu, eta 2003. urtean Fiare Fundazioa eratu zuten, banka etiko baterako oinarriak ezarriko zituzkeen herritar mugimendu aktiboa eratzeko. 2005ean Banca Popolare Etica (BPE) erakundearen agente izateko kontratua sinatu zuten, Europa osotik gehien interesatu zitzairen ekimena izan zen eta. Horrela, ekin zioten Espainian finantza-bitartekaritza jarduerari (Fiare Bancaetica).

Hainbat urteetan zehar aurrezkoa jaso, kredituak eman, lau sektoretan finantzabidea ezarri eta eginiko kapital soziala bilketa eta gero, 2011n Fiare eta BpE batzeko proposamena azaldu zen, bi herrialdetako batzarrek onartu ondoren, azkenen 2013. urtean Fiare Gunea eratu zen Banca Popolare Eticaren barnean. 2014ko udazkenean Fiare-ren etapa berria hasten da, Banca Popolare Etica gisa.

Italian, finantza etikoen lehendabiziko esperientzia MAG (Mutue per l'Autogestione) kooperatibaren eskutik etorri zen. Ideia ez zen lehendabizi dirua batu eta ondoren zer proiektu nahi zituzten finantzatu aukeratzea, lehenik eta behin zer finantzatu nahi zuten aukeratu, eta gerora enpresa sozialak inbertsio osoaren beharrezko zati bat uzteko konpromisoa hartuko litzuzkeen pertsonak bilatu. Hau da, ikuspegia aldatu zuten, proiektuetan oinarritzen hasi ziren, eta ez bakarrik ondorio ekonomikoetan.

1990eko hamarkadan, MAG antolakundeak kooperazio sozialeko, boluntariorako eta munduko elkarte erakundeekin harremanetan jarri ziren, sektoreotarako finantza proposamen egoki bat eratzeko xedez. Ekimenak arrakasta izan zuen, eta 1994ko abenduan Cooperativa Verso la Banca Etica eratu zen. 1999an banka-popular bilakatzeko kapital soziala batu zuten, eta Italiako Bankuaren baimena eskuratu eta gero, Paduan zabaldu zuen lehendabiziko filiala. Lurralde Ekimen Taldeei (GIT) esker, apurka-apurka sendotu eta Italia osora hedatu zen filialen zabalkuntzekin, gero eta pertsona gehiago inplikaturik eta kapitalizazioa bizituz (Fiare Bancaetica).

Jakin badakigu ekonomia-erabaki guztiak etika-erabaki ere badirela, ikusmolde sendo batetik hartutako erabaki izan ere, eta ondorioak badituztela, batzuen onerako zein besteren kalterako. Diruak duen balio soziala berreskuratzea dute helburu. Horregatik, printzipio horiek partekatzen dituzten pertsonen eta erakundeetako aurrezki-gordailuak kooperazioaren garapena, balio eraldatzaileak, nekazaritza ekologikoa, lankidetzaren garapena, bidezko merkataritza eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka finantzatzeko erabiltzen da.

Finantzatzeko proiektuak ekonomikoki, sozialki eta ingurumenaren aldetik zorrotz ebaluatzeaz gain, beraien konfiantzako kapitala osatzen dute, gardentasuna dute oinarri gisa. Horrek gordailuetako dirua non inbertitzen duten jakitea dakar, gero emandako finantzazioa argitaratuz.

Kudeaketa demokratikoa eta konpromiso etikoa bermatzen dituzte, bazkideen partaidetza “pertsona bat, boto bat” printzipioa jarraituz.

Europako erreferentziako kooperatibak banku bat dira, Italia eta Espainia artean 37.000 bazkide baino gehiagorekin, 5 eremu geografikotan antolatuta, partaidetza organu desberdinekin eta egitura dinamiko eta konplexu batekin.

Banku egitura osoak era lokalean antolatutako bazkideak ditu bizibide, kultur ekintza landu, egitura operatiboarekin kontaktuan egon, finantza-eskariei ebaluazio etiko-soziala egin, eta lekuan-lekuan banka zerbitzuen arloan egon litezkeen beharrak identifikatzeko (Fiare Bancaetica).

3.3.3 Oikocredit:

Oikocredit, jatorriz, Sociedad Cooperativa Ecuménica de Desarrollo bezala izendatua zegoen, hau Munduko Eliz kontseiluaren eskutik fundatu zen 1975. Urtean. Hasiera batean, instituzio erlijiosoei pertsona apaletan oinarritutako ordeko inbertsio etiko tresna bat emateko asmoarekin sortu zen (OikoCredit).

Munduko kreditu kooperatiba bat bezala eratuta daude, bere egoitza Herbehereetan duena eta beti Banka etikoaren irizpideen arabera lan egiten duena. Ikuspuntu integratzaile eta kooperatibo honek kide partikularren laguntza asoziazioen bidez taldekatu eta proiektuan parte hartzea erraztu du. Orain arte, asoziazio hauek izan dira kapital sozialaren zatirik handiena mobilizatu dutenak, Oikocredit-en arrakastan lagunduz.

1968. urteko Munduko Eliz Kontseiluko kide aldarrikatzaile eta gazteenak izan ziren Oikocredit fundazioaren sorburu, orain dela 50 urte baino gehiago, momentu honen atzetik maiatzeko borroka soziala, mugimendu bakezalea, eta gerrateak (Vietnam edo Aparheid) zeuden.

Kide hauek elizak eta organizazio sozialek bankuetan zituzten funtsak armetan edota diskriminazioan inbertituta egotea gogor kritikatzeko zuten, eta ordeko inbertsio etikoak sortzea proposatu zuten.

Hala ere, Oikocredit-ek momentu horretan zuen eredua, aldi berean urratzailea eta eztabaidagarria izan zen, kooperazio garapenarekiko zuen ikuspuntua ezberdina zen besteengandik. Oikocredit bankuak haratago joan nahi zuen, eta horregatik beraien ikuspuntua eraldatzailea izatea nahi zuten “Ez eman arraia, kanabera baizik” filosofiarekin. Dena dela, pertsona eta erakunde asko berehalaxe interesatzen hasi ziren hegoaldeko herrialdeei garapen iraunkorren laguntzeko era mota ezberdin honengatik, hortaz 68ko utopia bezala hasi zena itxura hartzen joan zen gaur egun arte (OikoCredit).

Oikocredit bankuak hegoaldeko lurraldeen ekonomia errealean inbertitzen dute, era ezberdin hauetan:

- Mikrokredituak: Erakunde mikrofinantzario lokalekin
- Kreditu zunenak: Enpresa txiki eta ertanei, gehien bat nekazaritzan eta bidezko merkataritzan oinarritzen diren kooperatibei

- Kapital sozialaren partizipazioa: Konpromezu sozial eta ekonomiko handi bat erakutsi duten enpresetan

Horrela, banku honen maileguak eraldaketa sozialaren tresna bat bihurtzen dira, sistema finantzariotik kanpo dauden pertsonentzat zuzenduta baitaude eta. Mikro erakunde finantzarioen bidez lortzen dute behar hauei aurre egitea, aktibitate ekonomikoen eta aberastasunaren birbanaketan lagunduz.

Inbertsio hauek 13 estatu ezberdinetan banaturik dauden hainbat laguntza erakunde bidez bideratzen dira, Espainiako estatuan 3 laguntza erakunde topa ditzakegu (Kataloia, Euskadi eta Sevilla), eta Euskadi mailan erakunde hauen partaide da Oikocredit:

- REAS Euskadi: 1997. urtean sorturiko enpresa eta entitate sozialak taldekatzen dituen sare bat da.
- Mercado social Euskal Herria: Produkzio, distribuzio eta ondasun eta zerbitzuen kontsumo sare bat da, ekonomi sozialean oinarritutako enpresa eta entitate sozialak eta beraien bezeroak elkartzen dituena.
- Saretuz: Donostiako Kontsumo Kontziente eta Eraldatzailearen aldeko Sarea da
- Fiare: Kooperatiba kreditu bat.

Laguntza asoziazioak, hauek bezalaoak, inbertsioak kanalizatzeaz gain, kooperatiban harturiko erabakietan ere aktiboki parte hartzen dute ere (OikoCredit).

3.3.4 Coop57

Coop57 Katalunian sortu zen, Bruguera Argitaletxeko langileek beren lanpostuen alde egindako borrokaren haritik. Argitaletxea ixtean, langile ohi talde batek diru funtsa eratu zuen kaleratzeen ondoren jasotako indemnizazioekin. Diru funts hori bereziki modelo kooperatiboak bultzatzeko helburuarekin eratu zuten. 1986. urtean, Espainiako Estatuko ekonomiaren krisi industrial gogorrean, Bruguera editorial ezaguna bideraezina deklaratu eta Kreditu Industrialeko Bankuaren esku geratu zen. Hainbat aldiz saiatu ziren enpresa hondotik ateratzen, kooperatiba bihurtuz edo erosleak bilatuz, baina likidatzea erabaki zuen bankuan. 775 langileetatik gehienek onartu zuten neurria, prozesuarekin nekatuta; euren kontratuak likidatzea nahiago izan zuten. Ez zen langile guztien erabakia izan, ordea. Horietako batzuek urteak eman zituzten epaitegietan borrokan, baita borroka moralean ere, justuak zirela jakin bazekiten kalte-ordainak lortu aldera. Azkenik, 1995. urtean, langile horiek urteetako borroka irabazi zuten, epaitegietatik garaile irten ziren (Coop57).

Hastapenak

Testuinguru horretan, Coop57 zerbitzu finantzarioen kooperatiba gisa martxan jarri zuten 1996. urteko ekainaren 19an. Hasieran, lan elkartuko kooperatibismoarekin oso loturik egon zen bere garapena, baina apurka-apurka bere oinarri soziala ekonomia sozial eta eraldatzailearen beste eremu batzuetara

zabaldu zuen: kooperatibismoaren beste zenbait lerro, elkarte, fundazioa, gizarteratze enpresa, gizarte mugimendu, sindikatu etab. Aldi berean kooperatibako kide laguntzaileen oinarria handitzen joan zen (Coop57).

Gaur egun arteko garapena

2005etik, proposamenak estatutako beste herrialdeetan sortutako interesa zela eta, Coop57k sare bidezko zabalkundea abian jarri zuen. Aragoiko ekonomia sozial eta eraldatzaileko sare batek eta Coop57k, elkarlanean, proiektua elkarbanatzea erabaki zuten. Coop57ren eredia, estruktura juridikoa eta estruktura teknikoa baliatzea izan zen asmoa, baina lurralde bakoitzak autogestiorako ahalmena mantenduz. Hala, beste herrialde batean abian jarritako lehen saila Aragoikoa izan zen (2005). Printzipio horiekin bat, ondoren eratu ziren Coop57 Madril (2006), Coop57 Andaluzia (2008) eta Coop57 Galizia (2009). Coop57 (Euskal Herria), berriz, 2015eko ekainean jaio zen. Bertakoa den ekonomia sozial eta eraldatzailean oinarritutako sarea izatean datza herrialdeko sailen arrakasta.

Koop57k bere oinarri sozialaren proiektuak finantzatzen ditu. Proiektu horiek balio erantsia eskaintzen diote gizarteari. Euren jarduerarekin errealitate justuagoak, solidarioagoak eta gizatiarragoak sustatzen dituzte (Coop57).

Finantzazioa ez da bideratzen sektore konkretu batzuetara, ekonomia guztia hartzen du kontuan, betiere, ekonomia sozial eraldatzailearen printzipioak errespetatuz. Bereziki sektore hauetan jarduten dugu:

- Mota guztietako kooperatibak (lan, kontsumo, zerbitzu...)
- Laneratzeko edo gizarteratzeko ekimenak
- Pertsonen zaintza
- Mugimendu sozialen proiektuak
- Iraunkortasuna eta ingurumena
- Kultura eta hezkuntza
- Kalitatezko lanpostu duinak eta iraunkorrak sustatu
- Demokrazian eta parte-hartzean sakondu
- Oinarrizko asoziazionismoa

Bazkideek Coop57ren informazio buletina jasotzen dute sei hilabetero. Bertan, onartutako eta finantzatutako proiektu guztiak jasotzen dira (diru kopurua, epeak, proiektuaren deskribapena etab.) (Coop57).

4 FIARE KASUA

Hirugarren atala, honekin bukatuko dugu ibilbide hau, kontzeptu guztiak ikusi eta ulertu eta gero Fiare bankuaren azterketa hasi dezakegu. Lehen sarrera txiki bat egin diogunez gero, zuzenean banku hau barnetik ezagutzera pasatuko gara.

4.1 Antolaketa eta proiektuen baloraketa

Hemen, Fiaren antolaketa eta proiektu bat baloratzerako orduan segitzen dituen pausoak jorratuko ditugu.

4.1.1 Antolaketa

Puntu hau garatzeko Jesús Ochoa Berganzaren eta Javier Iñiguez del Valen laguntza izan dut. Horrela, Fiarek eskaintzen digun informazioaz gain, proiektu horretan parte hartu duten pertsonen bizipenak ere izango ditugu.

Nola funtzionatzen du Fiarek Espainia mailan? Jarraian komentatutako laguntzari esker xehetasun asko jaso ditut lan honetan honi buruz. Lehendabizi ikusiko dugu azpitaldeetan egiten dutela lan, hau da, Espainian hiru talde handi daude, goi aldean “norte”, behe aldean “sur” eta Mediterraneo, hauek talde ezberdinak dira. Eta lotura izan arren era independente batean egiten dute lan, bakoitza bere erabakiak hartzeko gai da eta ez du besteen baimenik behar. Honek abantaila eta desabantaila batzuk sortzen ditu entitatean, Jesus Ochoak azaldu zidan bezala, honek komunikazioa eragozten du, baina orain momentuan Fiare banku handienetarikoa ez denez, komunikazioa mantendu daiteke, eta bere usteetan sistema hau oso onuragarria da, espezializazio mailagatik. Euskal Herrian topa ditzakegun enpresa eta Andaluzian topa ditzakegun enpresak zerao ezberdinak dira. Beraz, horrelako sistema batek bakoitzak bere inguruarekiko daukan jakinduria aprobetxatzen du. “Komunikazio falta” hipotetiko horretaz gero hitz egingo dugu.

Behin ulertuta zonaldeak daudela, beste azpitalde bat ikusiko dugu, talde territorialak, adibidez Gipuzkoa edota Bizkaia bezala, bakoitza talde bat da, eta era independente batean egiten dute lan, talde handiek bezala. Gainera, Gipuzkoa justu berezia da berezietan, talde territorialetan ohikoena enpresak puntu batean egotea da, baina Gipuzkoaren kasuan dakigun bezala hainbat industri puntu ezberdin daude, beraz esan genezake beste azpitalde batzuk dituela ere, Donostialdea eta Tolosaldea bezala adibidez, hauek talde komarkalak dira.

4.1.2 Proiektuaren balorazioa

Baina, zertarako behar ditugu hainbeste talde? Zein da talde territorialen helburu eta eginbeharra? Taldeak dira dirua nora bideratzen den erabakitzen dutenak. Hau da, proiektu bat proposatzen denean, hauek aztertu egiten dute,

goitik behera, ahal duten puntu denak begiratu. Eta gero horretan oinarritzen dira erabaki bat hartzeko.

Zein dira erabaki horiek hartzen dituzten pertsonak? Pertsona talde hori "Comite Territorial" deritza, eta bertako pertsonak izan ohi dira, bere ingurua ezagutzeko. Pertsona horiek borondatez egiten dute lan. Hauen oinarritzko eginbeharra enpresa batek proposatu duen proiektua baloratzea da. Proiektu baloratzeko bi modu daude, ikuspegi ekonomikoa eta ikuspegi ingurugiro-soziala.

Orain egiten duten azterketa horri buruz hitz egingo dugu, zein pausu daude, nola egiten diren edota ze eboluzio izan ohi duten.

- 1) Oinarritzko analisi ekonomikoa
- 2) Ingurugiroa eta inpaktu sozialaren analisi konplexua
- 3) Analisi ekonomikoa totala

Hauekin hasiko gara:

4.1.2.1 Oinarritzko analisi ekonomikoa

Ingurugiroa eta inpaktu soziala baloratu baino lehen gogoratu behar dugu fiare banku bat dela, eta askotan esan dugun bezala honek ekonomikoki irabazi batzuk ere lortu nahi dituela, baina beti ere bide on batetik abiatuz. Hori dela eta, ingurugiro eta inpaktu sozialarekin hasi baino lehen honako azterketa txiki hau egiten da, non aurreikusiko dute proiektu hori ikuspegi ekonomikoa batetik errentagarria izan daitekeen edo ez. Beraz proiektuak inpaktu sozial oso altu bat eta ingurugiroa errespetatu arren, ekonomikoki baliagarria ez bada momentu horretan kantzelatuz egingo da, eta horrela denbora asko aurreztuko da hurrengo pausua ez eginez.

4.1.2.2 Ingurumen eta inpaktu sozialaren ebaluazioa

Behin aurreko atala pasa eta gero "comite socioambiental" edo ingurugiro-sozial batzordearen txanda izango litzateke. Beraien lan egiteko prozesua hurrengoa da:

- a) Batzordeko kide batzuk (bi edo hiru) pertsonalki enpresa edota proiektu hori martxan jarri duen erakundeetara joaten dira, barrutik lan nola egiten duten ezagutzera. Bertan, galdetegi bat jarraitzen dute, zergatik? Aurreikusita dauzkaten puntu garrantzitsu guztiak joratzeko eta beste alde batetik homogeneotasun bat bilatzeko. Argi dago galdetegi hau irekia dela, eta ez itxia, berdina ez baita industria metalurgiko bateko enpresa bat aztertzea edo eskola bat. Honez gain, aipatzea galdetegi

hori beti berritzen eta hazten ari dela, gai berri batzuk sartuz eta besteak eraldatuz, denborarekin ahal den eta finena utziz. Hemen, aurrean utzi ditugun pare bat gauza azalduko ditut. Aurreko atalean esan dugun bezala batzorde territorialak independenteak dira, ba jakin behar dugu batzorde bakoitzak bere galdetegia duela, eta beraien esku dagoela hau egin eta aldatzea. Azkenean, lurralde bakoitzak berak ezberdintzen eta identifikatzen dituzten xehetasunak dauzka, beraz talde espezializatu ezberdinak edukitzeak asko laguntzen duen ideia da. Gainera, kontuan eduki oso ohikoa dela enpresa aurretik ezagutzea bertakoak badira edo bertako langileren batekin erlazioa edukitzea. Hori dela eta, zeharkako informazio hau (galdetegian azaltzen ez dena) garrantzi handikoa da, eta askotan Jesus Ochoak esan zidan bezala, hau izaten da askotan gakoa baiezkoa edo ezezkoa erabakitzeko.

- b) Batzordea osatzen duten pertsona gehienak geratzen saiatzen dira jasotako informazio hori prozesatzeko. Galdetegi hori puntu-puntu jorratzen dute, eta baloratu eta gero, emaitza batzuk lortzen dituzte. Erantzuna ez da beti bai edo ez izaten, egia esan, horrelako talde bat osatzen duten pertsonak nahiko gogorak izaten dira, ulertzen dutelako beraien erantzuna garrantzi handikoa dela. Arazoa tarte gris horretan gaudenean gertatzen da, batzuk proiektuarekin aurrea jarraitzea nahi dutela, baina aldi berean beste batzuek ez dutela uste, adibidez, inpaktu soziala nahikoa duenik. Horrelako kasuetan bi irtenbide daude:
 - i. Bigarrenengo elkarrizketa bat egitea. Horrela, hain ziur ez dauden puntu horietaz gehiago hitz egiteko.
 - ii. Baldintza bat jartzea proiektuari. Askotan puntu negatibo bakarra nahikoa da ezezkoa jasotzeko. Hori dela eta, posible da esatea puntu hori zuzendu eta gero proiektuarekin aurrera jarraituko dutela, hau da, baldintza bat ezartzea. Geroago kuestinario hori goitik behera komentatuko dugu, bertan sakonduz. Orain ulertu duguna baiezkoaren eta ezezkoaren arteko geruza oso fina dela, ikusi dezakegu zeharkako informazio hori, lurralde batekoa izateagatik duguna, izan dezaken eragina emaitzan.

Galdetegia

Galdetegia 8 ataletan banatzen da, proiektuaren 8 aldagai ezberdin ikusteko. Horiek, denborarekin aldatzen dijoaz eta aldagai berri bat gehitzea ere posiblea da.

Galdetegi hau pribatua denez, ez dugu aukera izan hitzez-hitz irakurtzeko, baina bai eman digutela aukera jakiteko atal bakoitzean zer alderdi aztertzen diren eta zeintzuk diren hori aztertzeko arrazoiak.

1. Zergatik Fiare?

Lehenengo atal honetan Fiaren aukeraketan zentratzen dira, zergatik Fiare eta ez beste banka etiko bat, edota beste banka tradizionala? Azken aukera bezala

erabiltzen ari da Fiare, ala benetan gizartean inpaktu positibo bat nahi du egin eta horregatik, Fiare bezalako banku bat nahi du laguntzaile bezala?. Honekin batera, lehen atal honetan, enpresa indibidualista den jakin nahi da, bestelako entitate sozialekin loturarik al duen ala ez, eta zer enpresa sareetan mugitzen den.

2. Bizilagunak²

Zergatik bizilagunak atal honetan? Erraza, beste enpresa batzuen abala duten jakin nahi dute gehien bat hemen. Horren arabera proiektu osoaren diru kantitate guztia edo zati bat bakarrik ematea posible da, arriskuak gutxitzeko. Ulertu behar dugu enpresa batek bere proiektua burutzeko bi diru iturri ezberdinak erabili ahal dituela. Alderdi hori ere atal honetan aztertuko da, hau da, bestelako entitateekin duen erlazioa, dagoeneko kreditu bat duen ala ez, etab. Kreditua banatzea ere ohikoa da, batzuetan bankuek arrisku guztia beregain hartu nahi ez baitute.

3. Enpresa eta proiektua bera

Behin Fiareren zergatia eta egoera aztertuta dagoenean, enpresa bera aztertzer pasatuko gera, hemen enpresaren oinarritzko aktibitateaz egingo dugu hitz, zertan oinarritzen da, eta zer motatako aktibitate sekundarioak dauzkan. Hau oso garrantzitsua da, gertatu izan da bigarrenko aktibitate honek edota aktibitate sekundario batek proiektua bertan behera botatzea, zer askotan esan dugun bezala proiektuari baiezkoa emateko enpresa osoa aztertzen da.

Proiektua ere hemen hasiko gara barneratzen, zenbateko denbora izango duen, zein pertsona hartuko duten parte, zenbat ordu egingo dituzten bertan, eta proiektuak langileetan zer eragin edo inpaktu izango duen. Azkenik, aurretik izan dituzten esperientzi ezberdinak beste proiektuekin.

4. Komunikazio eta transparentzia

Hemengo puntu honetan proiektuaren bestelako alderdi bat aztertuko dugu, transparentzia, banka etikoentzat hain garrantzizkoa den puntua. Proiektua eta enpresa berak duen transparentzia baloratu eta gero, bertan emango den komunikazioa ikusiko dugu. Parte hartuko duten talde ezberdinei informazioa nola transmitituko zaie (langile, bezero...) eta web orrialde baten laguntza erabiliko duten.

5. Alderdi ekonomikoa

Dakigunez bezala, gero izango da azterketa ekonomiko intentsiboa, hala ere, hemen ere jorratuko dugu gai hau, esan dugun bezala ahal dugun puntu guztiak ikusiko ditugu. Jesus Ochoak esan digun bezala bertan bakarrik "alderdi ekonomiko fundamentalak" ikusiko ditugu.

² Atal bakoitzaren izena, nik asmatutakoa da.

Hemen egongo diren galderak: enpresako zein talde ekonomikoek hartuko duen parte, enpresa nola dagoen finantzatua, eta proiektuaren dirua nola bideratuko den galdetuko da.

6. Demokrazia

Demokrazia, pisu asko duen hitza, baina beharrezkoa horrelako proiektu batean, partizipatzeko zein bide dituzte bezeroak edo proiektuan parte hartuko duten pertsonak, ze motatako jerarkia dagoen, bidezko informazio banaketa, aukera berdintasuna, eta azken finean pertsona denak berdintasunean egoteko beharrezko atributoak baloratuko dira puntu honetan.

7. Ingurugiroan eta sozietatean egingo duen inpaktua

Lehen horrelako punturen bat agertzea posible den arren, puntu hau sakontzeko erabiliko dugu. Eta horregatik bitan banatuko dugu:

Inpaktu soziala: Pertsonetan izango duen eragina, lanpostuak zortuko dituen, hauek fijoak ala denboraldi batekoak diren, zer arazo zor ditzake proiektuak langileen ordutegikin, hau da, proiektuak sozietatearekin bat egiten duen, ala bakarrik puntu batzuk jorratuko dituen.

Ingurugiroan izango duen inpaktua: Energi kontsumoa, sortutako zabor ezberdinak, hauen gestioa eta pertsonen osasunean eraginik duen izan daiteke galdera posibleak.

8. Kanpoko konpromezua

Galdetegi honekin bukatzeko, enpresak kanpoari begira dituen mugimenduak aztertuko ditugu, ze erlazio dauzkan kanpoko enprekin, entitate publiko ezberdinekin dituen erlazioak, edota bere salmentak hemen edo atzerrian sortzen diren.

4.1.2.3 Analisi ekonomiko totala

Azterketa ekonomiko azkar hori, eta batzordea pasatu ondoren, orain bai ekonomikoki azterketa sakon bat egitera pasatzeko momentua dela. Hemen esatea azterketa ekonomikoa egiten duten pertsonak, eta beste puntu sozialak aztertzen dituzte pertsonak talde ezberdinekoak direla, hau da, ekonomia alde batetik doa eta ingurugiroa eta alderdi soziala bestetik. Analisi ekonomiko honetan benetan epe motz eta luzean izango duen errentagarritasuna eta arrisku maila baloratuko dute, ea errentagarria den bankuarentzat edo ez. Posible da azterketa ekonomiko simplea eta batzordea pasatu duen proiektu batek gero honako azterketa honetan bertan behera ustea.

4.2 Elkarrizketak

Lan honi beste balio erantsi bat emateko intentzioarekin ahal nuen informazio iturri onenak aukeratzeko saiatu naiz. Lan honen helburua Fiare kasua aztertzea izanik, Fiare bankuan parte hartzen duten kideen ideiak nahi nituen lan honetan barneratzea.

Elkarrizketaren helburua beste inon lortu ezin nuen informazioa lortzea zen, eta horri esker Fiare bankua aztertzerakoan zerbait pertsonala gehitzeko aukera izatea.

Orain lan honekin batera lortu ditudan elkarrizketa eta hitzorduaz arituko gara puntu honetan. Hiru elkarrizketa mota izan ditut:

1. Mugarik gabeko ekonomilariak organizazioarekin eginiko hitzorduak:

